Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA ARRASATEKO UDALERRIAN HAURRENTZAKO ZERBITZUAREN ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ ESLEITZEKO.		**PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO PARA LA INFANCIA Y DEL SERVICIO PARA LA ADOLESCENCIA EN EL MUNICIPIO DE ARRASATE.**
1. XEDEA.		1. **OBJETO.**
Agiri honen xedea da Arrasateko udalerrian Haurrentzako Zerbitzua eta Nerabeentzako Zerbitzua agindu behar duten baldintza teknikoak arautzea.		El objeto del presente pliego es la regulación de las condiciones técnicas que han de regular el Servicio para Infancia y el Servicio para Adolescencia en el municipio de Arrasate.
Kontratuaren exekuzioa gauzatzen da bi zerbitzuen diseinu, planifikatze, emate eta antolaketa lanetan, agiri honetan ezarritakoarekin bat etorrita eta Udaleko Gazteria Sailaren zuzendaritzapean.		La ejecución del contrato consiste en el diseño, planificación, prestación y organización de ambos servicios, de conformidad con lo establecido en el presente pliego y bajo la dirección del área de Juventud del Ayuntamiento.
2. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.		2. **INTRODUCCIÓN Y JUSTIFICACIÓN.**
Haurrentzako, Nerabeentzako eta Gazteentzako udal politika definitzea.		**Definición de la política municipal de Infancia, Adolescencia y Juventud.**
4/2022 Legea, Haurren eta Nerabeen Eskubideak Bermatzeko eta Haien Garapena Sustatzeko Euskal Legea, aisialdi eskaintzari dagokionez, hainbat puntu garrantzitsu ezartzen ditu, aisialdia haurren eta nerabeen eskubideen eta garapenaren parte gisa sustatuz. Legearen xedea da haurren eskubideak babestea eta aisialdi hezitzailea bultzatzea, besteak beste, aisialdi jarduera eta egitarauen bidez.		La Ley 4/2022, Ley Vasca para la Garantía de los Derechos de la Infancia y la Adolescencia y para la Promoción de su Desarrollo, en relación con la oferta de tiempo libre, establece una serie de puntos importantes promoviendo el tiempo libre como parte de los derechos y el desarrollo de la infancia y la adolescencia. El objetivo de la ley es proteger los derechos de las niñas y niños y promover el ocio educativo a través de actividades y programas.
2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena, 35. artikulua. Jolaserako eta aisialdirako eskubidea.		Ley 2/2024, de 15 de febrero, de Infancia y Adolescencia, artículo 35. Derecho al juego y al ocio.

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

Pertsona adingabeek atsedenerako, jolaserako eta aisialdirako eskubidea dute, aisialdi hezigarria barne, ingurune irisgarri, seguru, osasungarri eta inklusiboetan hezteko, osorik garatzeko eta sozializatzeko funtsezko elementu gisa.		Las personas menores de edad tienen derecho al descanso, al juego y al ocio, incluido el ocio educativo, como elementos esenciales para la educación, el desarrollo integral y la socialización en entornos accesibles, seguros, saludables e inclusivos.
Lege honen ondorioetarako, aisialdi hezigarritzat hartzen da garapen integralari laguntzen dioten aisialdiko jardueren multzoa; jarduera horiek pertsona adingabeak parte hartzeko ohituretan, ingurumena errespetatzeko ohituretan edo konpromiso, elkartasun eta gizarte inklusiorako balioetan heziko dituzte, eta pertsona adingabeei berdinen arteko harremanak eta gizarte-gaitasuneko trebetasunez jabetzen lagunduko diete.		A los efectos de esta ley, se entiende por tiempo libre educativo el conjunto de actividades de ocio que contribuyen al desarrollo integral, educando a las personas menores de edad en hábitos de participación, respeto al medio ambiente o valores de compromiso, solidaridad e inclusión social, y facilitando a las personas menores de edad la adquisición de relaciones entre iguales y habilidades de competencia social.
Arrasateko Udalak Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako bideratzen duen politikaren xedea ondorengoa da: egonkortasunez, eta jarraikortasunez, Arrasateko haur, nerabe eta gazteei garatzeko aukera ematea, eta haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gaztaroaren arlo bikoitzaz gozatzeko aukera ematea:		El objetivo de la política de Promoción de la Infancia, la Adolescencia y Juventud del Ayuntamiento de Arrasate es facilitar con estabilidad y continuidad que las niñas, niños, adolescentes y jóvenes del municipio se desarrollen y disfruten de su infancia, adolescencia y juventud en su doble dimensión:
Berezko balioa eta esanahia duen garai gisa; izan ere, pertsona bakoitza bere bizitzaren protagonista, hiritartasun eskubideen subjektu eta gizarte ehunaren ezinbesteko atal da.		Como etapa vital con valor y significado en sí misma, en la que cada persona es protagonista de su vida, sujeto de derechos de ciudadanía y parte indispensable del tejido social.
Heldutasunaren, ikaskuntzaren, banakako gaitasunen indartzearen eta giza loturen bitartez, harian-harian, emantzipazio prozesua bideratzen duen aldi gisa. Hau da, heldutasunerako ibilbide arrakastatsua eta atsegina egitea, erabakiak autonomia handiagoaz lortu ahal izateko, eta bizitzako proiektu pertsonala abian jarri ahal izateko.		Como etapa que, mediante la maduración, aprendizaje y fortalecimiento de capacidades personales y vínculos sociales, posibilita un proceso progresivo de emancipación, es decir, una transición exitosa y satisfactoria a la condición adulta, en la que se alcanza la mayor autonomía para la toma de decisiones y su puesta en práctica en un proyecto personal de vida.
Prozesu hau bultzatzeko, administrazioak talde		Para favorecer este proceso, la administración se

hau (haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa) osatzen duten adin tarteak etengabe artatzeko beharrezkoa den zerbitzu sorta eratu du.		dota de una gama de servicios destinados a cubrir el continuo de atención a las diferentes franjas de edad que forman el colectivo (infancia, adolescencia y juventud).
Arrasateko Udalak bi zerbitzu hauek ditu martxan:		El Ayuntamiento de Arrasate tiene en marcha estos dos servicios:
Haurrentzako zerbitzua, hiru ludotekak osatzen dutena: Okendo, Santa Marina eta Usaetxe.		**Servicio para la Infancia**, integrado por tres ludotecas: Okendo, Santa Marina y Usaetxe.
Zerbitzu horren baitan 2025-2026 ikasturtean gune berri bat jarriko da martxan, 9-12 urte bitarteko haurrei zuzendua, herriaren erdialdean (Azoka kalea, 4).		Dentro de este servicio, el curso 2025-2026 se pondrá en marcha un nuevo espacio destinado a las niñas y niños de 9 a 12 años en la zona centro (Azoka kalea, 4).
Nerabeentzako zerbitzua, gazteleku batek eta auzoetako hiru gaztetxokok osatua: Musakola, San Andres eta Erguin.		**Servicio para la Adolescencia**, integrado por un gazteleku y tres gaztetxokos de barrio: Musakola, San Andrés y Erguin.
Haurrentzako Zerbitzua.		**Servicio para la Infancia.**
Goiz-goizetik, haurren garapenean, garrantzia dute balio hezitzailea duen jolasean oinarritzen diren denborek eta lekuek, baina familiarteko eta eskolako denboretatik bereizita.		Desde muy pronto en el desarrollo infantil tienen sentido unos tiempos y espacios centrados en el juego como valor educativo, pero diferenciados de los tiempos y espacios intrafamiliares y escolares.
Zerbitzu horien xedea da denbora eta gune horietarako eskaintza egonkorra egitea. Proposamen hau haurtzaroan zehar egokitzen da, eta aukera ematen dio Administrazioari bere proiektuaren misioa betetzeko.		Estos servicios pretenden ser una oferta estable para esos tiempos y espacios. Una propuesta que se va adaptando a lo largo de la etapa infantil, y que permite a la Administración cumplir con la misión de su proyecto.
Nerabeentzako Zerbitzua.		**Servicio para la adolescencia.**
Nerabezaroan areagotu egiten da pertsonek propiotzat hartzen dituzten denborak eta guneak izateko eta, familia eta eskola ingurutik bereziturik, berdinekin egoteko premia.		La adolescencia es una etapa en la que se acentúa la necesidad, por parte de las personas, de tiempos y espacios sentidos como más propios, de encuentro con sus pares y diferenciados del entorno familiar y escolar.

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

Nerabeentzako Zerbitzuaren xedea da denbora eta gune horietarako eskaintza egonkorra egitea, eta aldi berean, hurbileko pertsona helduei errespetuz gerturatzeko aukera ematea, baita nerabezaroak berezkoak dituen saiakerak eta ahaleginak egiteko laguntza eta erraztasunak ematea ere.		El Servicio para Adolescentes pretende ser una oferta estable para esos tiempos y espacios, a la vez que ofrece una proximidad respetuosa de personas adultas cercanas, que facilita y apoya algunos de los ensayos y los intentos propios de la adolescencia.
Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuen jarduera esparruak.		**Áreas de actuación de los Servicios para la Infancia y la Adolescencia.**
Haurren eta nerabeen premiak etengabe antzemateko beharra dagoela kontuan izanik, zerbitzuek jarduera esparru handiak edo jarduera mota zabalak eskaintzen dizkiete hartzaileei, horien premiei erantzun ahal izateko:		Teniendo en cuenta como base la detección continua de las necesidades de los niños, niñas y adolescentes, los servicios ofertan a sus personas destinatarias una serie de grandes áreas de acción o tipos de actuación mediante los que darles respuesta:
a) Informazioa.		a) Información.
b) Orientabidea.		b) Orientación.
c) Akonpainamendua.		c) Acompañamiento.
d) Aisia hezitzailea.		d) Ocio educativo.
e) Adierazpenerako eta partaidetzarako kanalak.		e) Canales para la expresión y participación.
f) Sorkuntzarako eta ekoizpenerako laguntzak.		f) Apoyos para la creación y producción.
Hartzaileekiko zuzeneko elkarreragina sustatzeaz gain, Haurrentzako eta Nerabeentzako zerbitzuek lankidetzarako eta sareko lanerako dinamikak ere bultzatuko dituzte hainbat esparrutan, haurren eta nerabeen garapen eta emantzipazio prozesuetan, beraien eskubideez gozatzeko garrantzitsuak diren sistemak eta politikak kontuan izanik eta, betiere, hartzaileen		Además de impulsar la interacción directa con sus personas destinatarias, los Servicios para la Infancia y la Adolescencia promoverán dinámicas de colaboración y trabajo en red con diferentes ámbitos, sistemas o políticas que sean importantes en los procesos de desarrollo y emancipación de los niños, niñas y adolescentes y de disfrute de sus derechos, teniendo siempre las personas

partaidetza aktiboa izanik. Ildo horretatik, metodologia parte hartzailea lanabes oinarrizkoa eta estrategikoa izango da zerbitzu bakoitzean.		destinatarias una participación activa. En este sentido, la metodología participativa será una de las herramientas fundamentales y estratégicas de cada uno de los servicios.
Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuetako jarduera arloetako bakoitzaren edukia ondorengoa izango da:		El contenido de cada una de las áreas de actuación de los servicios para la Infancia y la Adolescencia será el siguiente:
a. Informazioa.		a. **Información.**
Datu erabilgarriak eta egiazkoak dituen informazioa, garaiz emandakoa eta nahikoa izango dena, eraginkortasunez eta era antolatuan eta esanguratsuan emandakoa, haurrek eta nerabeek beraien esku dauden baliabideak eta aukerak eskuratu ahal izan ditzaten (kultura, heziketa, osasuna, e.a.).		Información con datos útiles y veraces, proporcionados a tiempo, en cantidad suficiente, eficientemente y de manera organizada y significativa, para facilitar que los niños, niñas y adolescentes accedan a los recursos y oportunidades que están a su disposición (cultura, educación, salud, etc.).
b. Orientabidea.		**b. Orientación.**
Orientabidea haurrentzako eta nerabeentzako laguntza bat da, haien bizitzako hainbat arlori buruzko aukerak identifikatzen eta erabakiak hartzen lagunduko diena. Batzuetan, pertsona beste eragile edo erakunderen batera bideratuko da, duen premiari hobeto erantzun ahal izateko.		La orientación es una ayuda a las niñas, niños y adolescentes para que puedan identificar alternativas y tomar decisiones en relación con diferentes aspectos de su vida. A veces se derivará la persona hacia otro agente o instancia que pueda responder mejor a la necesidad que presenta.
c. **Akonpainamendua.**		**c. Acompañamiento.**
Akonpainamendua nolabaiteko egonkortasuna eta jarraikortasuna izan behar duen harremana da, haurrei eta nerabeei erabakiak hartzeko, baliabideak erabiltzeko, jarduerak egiteko, aukerak bereizteko eta loturak egiteko laguntza emango diena. Akonpainamenduak pertsonen arteko elkarreraginean oinarritzen den harremana eskatzen du, eta pertsonen arteko konfiantzan oinarritzen da.		El acompañamiento es una relación de cierta estabilidad y continuidad para la toma de decisiones, utilización de recursos, realización de actividades, discernimiento de opciones y construcción de vínculos por parte de las niñas, niños o adolescentes. El acompañamiento exige una relación interpersonal interactiva, directa, y se basa en la construcción de confianza interpersonal.
d. Aisiarako heziketa.		**d. Ocio educativo.**

Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuek haurren eta nerabeen aisian egiten den esku-hartzea jarriko dute abian. Esku hartze hau sortzailea eta atsegina izateaz gain, esku hartze honen xedea da ageriko helburu hezitzaileak lortzea (hau da, bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak eskuratzea edo garatzea xede duen esku hartzea).		Los Servicios para la Infancia y la Adolescencia pondrán en marcha un tipo de intervención realizada durante el tiempo libre de las niñas, niños y adolescentes, intervención que además de ser creativa y gratificante, persigue conseguir unos objetivos educativos explícitos (es decir, una intervención que pretende la adquisición o desarrollo de capacidades, actitudes y valores para la vida).
e. Adierazpenerako eta partaidetzarako kanalak.		**e. Canales para la expresión y participación.**
Jarduera honen bidez benetako aukerak sortu eta dinamizatuko dira, haurrek eta nerabeek Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuei buruzko eta beraien bizitzetan esanguratsuak izan daitezkeen hainbat arlori (kultura, hezkuntza, osasuna, e.a.) buruzko iritziak eman, proposamenak egin, erabakiak hartu, erantzukizunak bere gain hartu, kudeatu edo elkarren artean kudeatu eta, nolabait, kontrolatu ahal izan ditzaten.		Esta área de acción supone la generación y dinamización de oportunidades reales para que las niñas, niños y adolescentes puedan manifestar opiniones, trasladar propuestas, tomar decisiones, asumir responsabilidades, gestionar o cogestionar y ejercer el control en alguna medida tanto sobre los Servicios para la Infancia y Adolescencia, como sobre otros ámbitos relevantes de su vida (cultura, educación, salud, etc.).
f. Sorkuntzarako eta ekoizpenerako laguntzak.		**f. Apoyos para la creación y producción.**
Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuek benetako aukerak sortuko eta dinamizatuko dituzte, haurrek eta nerabeek beraien gaitasun sortzailea eta ekoizlea bultzatu eta bideratu, eta halaber, jarduerak eta proiektuak egin eta bisualizatu ahal izan ditzaten. Helburua da, haurren eta nerabeen gogokoak izan daitezkeen banakako jarduerak eta kolektiboak gauzatzeko aukera ematea.		Los Servicios para la Infancia y la Adolescencia generarán y dinamizarán oportunidades reales para que las niñas, niños y adolescentes puedan desarrollar y visualizar actividades y proyectos en los que se potencie y canalice su capacidad creativa y productiva. El objetivo es posibilitar la materialización de actividades individuales y colectivas diversas en las que pueden tener interés las niñas, niños y adolescentes.
3. **ZERBITZUEN HELBURUAK.**		**3. OBJETIVOS DE LOS SERVICIOS.**
3.1. **HAURRENTZAKO**		3.1. **OBJETIVOS DEL SERVICIO PARA**

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

ZERBITZUAREN HELBURUAK		**LA INFANCIA.**
• **Haurrekin beraiekin lotutako helburuak:**		• **Objetivos vinculados a la infancia:**
1.-Beren haur izaera ingurune ez formal eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.		1.- Posibilitar el desarrollo de ser niños y niñas de un modo favorable en un entorno no formal y lúdico.
2.-Betebeharrik gabeko beren denbora eta aisia era aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasuntsuan gozatzea, ongizatea eta garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko.		2.- Gozar de su tiempo sin obligaciones, de su ocio, de modo activo participativo, creativo y saludable, con el fin de impulsar el bienestar y el desarrollo personal y social.
3.-Bizitzarako oinarrizkoak diren jarrerak eta trebetasunak eskuratzea eta garatzea (kognitiboak, sozialak, psikomotrizitatekoak, afektiboak, teknologia berrien erabilera osasuntsua, errealitatean oinarritutako nortasun digitalaren eraikuntza e.a.).		3.- Adquirir y desarrollar las actitudes y las habilidades básicas de la vida (cognitivas, sociales, psicomotrices, afectivas, uso saludable de las nuevas tecnologías, desarrollo de la identidad digital realista etc.).
4.-Beren artean haur izaeren aniztasuna ezagutu eta haur izateko modu desberdinak onar ditzaten erraztea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.		4.- Conocer las diferentes formas de ser niños y niñas y facilitar la aceptación de esos modos diferentes de ser. Crear dinámicas para la convivencia de la diversidad idiosincrática.
5.- Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea, suspertzea.		5.- Promover e impulsar la convivencia grupal y las relaciones intergrupales.
6.-Trantsizioak erraztea (haurtzarotik nerabezarora), erritmo eta egoera desberdinak kontutan hartuta.		6.- Facilitar las transiciones (de la infancia a la adolescencia), teniendo en cuenta los diversos ritmos y situaciones.
7.-Beren inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, nola aldatu pentsatzera bultzatzea.		7.- Promover el conocimiento, el entendimiento y el pensamiento para cambiar la realidad cercana a su entorno.
8.-Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.		8.- Hacer que se sientan sujetos activos que participan en los temas comunes.
9.-Jakin nahia bultzatzea eta oinarrizko		9.- Impulsar el deseo de conocimiento y facilitar el

informazioa eskuratzen laguntzea, gizartearen partaide aktibo izan daitezen.		alcance de la información, para que participen activamente en la sociedad.
10.-Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden heldu onuragarriak haurren eskura jartzea, haurren heltze prozesua erraztu eta laguntzeko.		10.- Poner a disposición de los niños y niñas una serie de personas adultas positivas que, estando dispuestas a crear una relación eficaz, faciliten y acompañen el proceso madurativo de estos/as.
11.-Hainbat gaitasunen garapena sustatzea: erabakiak hartzea, iritzia ematea eta parekoen taldearekin eztabaidan jardutea, duten gaitasunaren arabera, eta haien interesekoak diren gaietan.		11.-Promover el desarrollo de diferentes capacidades: la adopción de decisiones, el hecho de dar opiniones y debatir con el grupo de iguales en temas que sean de su interés, de acuerdo con las capacidades que poseen.
• **Helduen gizartearekin lotutako helburuak:**		• **Objetivos vinculados a la sociedad adulta:**
1.-Helduen gizarteari haurtzaroa zer den eta haurrek beraien eskubideetan oinarrituta etapa horretan dituzten beharrak zein diren azaltzea, aukerak sortuz.		1.- Transmitir a la sociedad adulta qué es la infancia y las necesidades que tienen en esa etapa, de acuerdo con sus derechos, creando oportunidades.
2.-Hezkuntza denborari buruzko ideia familien artean hedatzea. Gurasoekin eta beste profesional batzuekin haurrak modu aktiboan hezteko modu egokiak lantzea.		2.- Difundir entre las familias la idea de tiempo educativo. Trabajar junto con las madres y padres y otros profesionales las formas adecuadas de educar activamente a las y los niños y niñas.
• **Beste profesional batzuekin lotutako helburuak:**		• **Objetivos vinculados a profesionales de otros ámbitos:**
1.-Haurrez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haurrei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea.		1.- Crear y compartir con las personas profesionales de diferentes recursos y sistemas que se ocupan de la infancia las formas adecuadas y eficaces de atender a esas personas.
2.-Haurrei arreta emateko, sareko lan sistema komunitario batean parte hartzea.		2.- Participar en un sistema de trabajo comunitario para atender a la infancia.
3.2. **NERABEENTZAKO ZERBITZUAREN HELBURUAK.**		**3.2. OBJETIVOS DEL SERVICIO PARA LA ADOLESCENCIA.**

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

• **Nerabeekin beraiekin lotutako helburuak:**		• **Objetivos vinculados a las y los adolescentes:**
1.-Nerabeen izaera ulertzen eta kudeatzen laguntzea.		1.-Ofrecer ayuda para comprender y gestionar la idiosincrasia adolescente.
2.-Nerabeen izaera ingurune ez formal eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.		2.-Posibilitar el desarrollo de la adolescencia de un modo favorable en un entorno no formal y lúdico.
3.-Betebeharrik gabeko beren denbora betetzeko modu desberdinak, suspergarriak eta sorkuntzakoak ahalbidetzea.		3.-Gozar de su tiempo sin obligaciones, de su ocio de modo activo participativo, creativo y saludable, con el fin de impulsar el bienestar y el desarrollo personal y social.
4.-Bizitzarako oinarrizkoak diren jarrerak eta trebetasunak eskuratzea eta garatzea (kognitiboak, sozialak, psikomotrizitatekoak, afektiboak, teknologia berrien erabilera osasuntsua, errealitatean oinarritutako nortasun digitalaren eraikuntza e.a.).		4.-Adquirir y desarrollar las actitudes y las habilidades básicas de la vida (cognitivas, sociales, psicomotrices, afectivas, uso saludable de las nuevas tecnologías, desarrollo de la identidad digital realista, etc.).
5.-Nerabeek jarduerak antolatzeko, euren burua antolatzeko eta denbora kudeatzeko egiten dituzten proposamenak jaso eta bideratzea.		5.-Facilitar y recoger las propuestas que realizan las personas adolescentes para organizar actividades, para organizarse a sí mismas y para gestionar sus tiempos.
6.-Nerabe izateko modu desberdinak ezagutzea eta horiek onartzen laguntzea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.		6.-Conocer las diferentes formas de ser adolescente y facilitar la aceptación de esos modos diferentes de ser. Crear dinámicas para la convivencia de la diversidad idiosincrática.
7.-Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea eta suspertzea.		7.- Promover e impulsar la convivencia grupal y las relaciones intergrupales.
8.-Trantsizioak erraztea (haurtzarotik nerabezarora eta nerabezarotik gaztarora), erritmo eta egoera desberdinak kontutan hartuta.		8.- Facilitar las transiciones (de la infancia a la adolescencia y de la adolescencia a la juventud), teniendo en cuenta los diversos ritmos y situaciones.
9.-Arriskuen kudeaketaren ikaskuntza lantzea.		9.-Trabajar al aprendizaje de la gestión de riesgos.

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

10.-Beren inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, nola aldatu pentsatzera bultzatzea.		10.-Promover el conocimiento, el entendimiento y el pensamiento para cambiar la realidad cercana a su entorno.
11.-Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.		11.- Hacer que se sientan sujetos activos que participan en los temas comunes.
12.-Jakin nahia bultzatzea eta oinarrizko informaziora iristen laguntzea, gizartearen partaide aktiboak izan daitezen.		12.-Impulsar el deseo de conocimiento y facilitar el alcance de la información, para que participen activamente en la sociedad.
13.-Sorkuntza eta ideien hedapena suspertu eta ahalbidetzea.		13.-Promover y posibilitar la creatividad y la difusión de ideas.
14.-Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden heldu onuragarriak nerabeen eskura jartzea.		14.-Poner a disposición de las personas adolescentes una serie de personas adultas positivas dispuestas a crear una relación significativa.
15.-Harreman eragingarriak lantzea nerabeen eremuetan presentzia izanez, jarduerak dinamizatuz, laguntza eskainiz.		15- Crear relaciones significativas en los espacios de las personas adolescentes, dinamizando actividades, ofreciendo ayuda.
16.-Nerabeen autonomia suspertzea eta haien jokaerek erantzuna izan dezaten laguntzea, nork bere erantzukizuna landu ahal izateko.		16.-Promocionar su autonomía y facilitar que sus comportamientos tengan una respuesta, para que cada persona trabaje su responsabilidad.
• **Helduen gizartearekin lotutako helburuak:**		• **Objetivos vinculados a la sociedad adulta:**
1.-Helduen gizarteari nerabezaroa eta nerabeek aldi hori bizitzeko dituzten moduak ulertaraztea. Nerabe izaera desberdinen normalizazioa ahalbidetzea.		1.- Transmitir a la sociedad adulta qué es la adolescencia y las formas en las que se vive esa etapa. Posibilitar las diferentes formas de ser adolescente.
2.-Hezkuntza denborari buruzko ideia familien artean hedatzea. Gurasoekin eta beste profesional batzuekin nerabeak modu aktiboan hezteko modu egokiak lantzea.		2.- Difundir entre las familias la idea de tiempo educativo. Trabajar junto con las madres y padres y otros profesionales las formas adecuadas de educar activamente a las y los adolescentes.

• **Beste profesional batzuekin lotutako helburuak:**		• **Objetivos vinculados a profesionales de otros ámbitos:**
1.-Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin nerabeei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatzea.		1.- Crear y compartir con las personas profesionales de diferentes recursos y sistemas que se ocupan de la adolescencia las formas adecuadas y eficaces de atenderla.
2.-Nerabeei arreta emateko sareko lan–sistema komunitario batean parte hartzea.		2.- Participar en un sistema de trabajo comunitario para atender a la adolescencia.
3.3. Bestelako zehaztapenak.		**3.3. Otras especificaciones.**
Zerbitzu bakoitzean egingo den eskaintza artatzen diren erabiltzaileen premietan eta eskaeretan oinarrituko da. Hala, ezinbestekoa izango da premiak eta eskaerak antzematea; izan ere, horien gainean eraikiko dira ekintza programatikoak.		La oferta que se realice en cada uno de los servicios se fundamentará en las necesidades y demandas de las personas usuarias. Es fundamental detectar asas necesidades y demandas, ya que sobre ellas se sustentan las acciones programáticas.
Zerbitzuak agiri honen hasieran aipatu diren sustapen politikarako 6 jarduera esparruak edo arloak garatuko direneko guneak dira.		Los servicios son espacios para el desarrollo de las 6 líneas o áreas de actuación de la política de promoción, indicadas al inicio de este documento.
Hartzaileen partaidetza aktibo eta askea bultzatuko da beraien interesekoak diren gaietan, eta horretarako, prozesuak hartzaileen gaitasunetara eta aukeretara egokituko direla. Hala, partaidetza fase eta zeregin guztiak biltzen dituen lan mota zentral eta estrategikoa izango da.		Se promoverá la participación activa y libre de las personas destinatarias de los servicios en temas de su interés y se adaptarán los procesos a las capacidades y posibilidades de las personas destinatarias. Se entenderá esta participación como una forma de trabajo central y estratégica que impregna todas y cada una de las fases y tareas.
Zerbitzuetako jarduerak garatuko dira bai azpiegituren barruan eta baita aire zabalean ere.		Las actividades de los servicios se desarrollarán tanto dentro de los locales como al aire libre.
Zerbitzuek hainbat estrategia jarriko dituzte abian, haurrak eta nerabeak bai udalerrian, bai inguruko udalerrietan haiei zuzentzen zaizkien zerbitzu, programa eta ekipamendu guztietara hurbildu daitezen.		Los servicios pondrán en marcha estrategias para que niñas, niños y adolescentes se acerquen al conjunto de servicios, programas y equipamientos destinados a ellos y ellas, tanto en el municipio como en los alrededores.

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

4. **ZERBITZUEN HARTZAILEAK**		5. **PERSONAS DESTINATARIAS DE LOS SERVICIOS**
• **Haurrentzako Zerbitzua:**		• **Servicio para la Infancia:**
a) Okendo, Santa Marina eta Usaetxeko Ludotekak 3-11 urte bitarteko Arrasateko haur guztiei zuzenduta daude.		a) Las ludotecas de Okendo, Santa Marina y Usaetxe están destinadas a todas las niñas y niños de Arrasate de edades comprendidas entre 3 y 11 años.
b) Azoka kaleko asteburuko aisialdi zerbitzua 9-12 urte bitarteko haurrei zuzendua, herriaren erdialdean.		b) El servicio de ocio de fin de semana de Azoka kalea está destinado a todas las niñas y niños de Arrasate de 9 a 12 años.
• **Nerabeentzako Zerbitzua:**		• **Servicio para la Adolescencia:**
Nerabeentzako Zerbitzua: 12-17 urte bitarteko Arrasateko nerabe guztiei zuzenduta dago.		El Servicio para la Adolescencia está dirigido a todas las personas de Arrasate de edades comprendidas entre 12 y 17 años.
Adin tarte zabal horietako haur eta nerabeen errealitate, premia eta gaitasun anitzak kontuan izanik, eskaintza berezitua izango da eta adin tarte bakoitzari egokitu beharko zaio. Beharrezkoa balitz, txandakako sistemak ezarri ahalko dira.		Teniendo en cuenta la diversidad de realidades, necesidades y capacidades de las niñas, niños y adolescentes y la amplitud de los rangos de edad señalados, la oferta será diferenciada y deberá adaptarse a cada tramo de edad. Si fuera necesario, se podrán establecer sistemas rotativos.
Udalerriko eskaera artatu ostean, beste udalerri batzuetako haurrak eta nerabeak onartzeko aukera aztertu ahal izango da.		Una vez atendida la demanda del municipio, se podrá estudiar analizar la admisión de niñas y niños y adolescentes de otros municipios.
Erabiltzaileen aniztasuna bilatuko da (adina, jatorria, ikastetxea, generoa, etab.); aniztasun hori lortzeari begirako estrategiak etengabe detektatu, aztertu eta diseinatuko dira.		Se buscará la diversidad de personas usuarias (edad, origen, centro educativo, género, etc.) y se realizará un trabajo continuado de detección, análisis y diseño de estrategias encaminadas a conseguir este objetivo.
Zerbitzuek bere izaera publiko eta unibertsala bermatzeari begira, lan egingo dute kontuan izanik herriko haur eta nerabe guztiak,		Al objeto de garantizar su carácter público y universal, los servicios, trabajarán teniendo en cuenta a todas las niñas, niños y adolescentes del

zerbitzuetako erabiltzaile direnak eta ez direnak. Eta ekipamenduetatik at, herriko beste espazioetan ere presentzia izan beharko dute.		pueblo, tanto a quienes utilizan los servicios como a quienes no lo hacen. Y deberán tener presencia también en otros espacios del pueblo, fuera de los equipamientos.
Horretaz gain, haurren eta nerabeen heziketaren ardura partekatzen duten pertsona helduak (gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, e.a.) zerbitzuen zeharkako hartzailetzat hartuko dira.		También se consideran destinatarias indirectas de los servicios a las personas adultas que comparten la responsabilidad educativa de las niñas, niños y adolescentes (padres y madres, personas educadoras, profesorado, etc.).
5. ZERBITZUEN ESKAINTZA.		6. **PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS.**
Zerbitzuen eskaintza bideratuko da Udalak haur eta nerabeentzat ezarritako helburuak lortzera.		La oferta de los servicios se encaminará a la consecución de los objetivos establecidos por el Ayuntamiento para la infancia y adolescencia.
Zerbitzuen arduraduna Arrasateko Udala da eta Gazteria Sailari dagokio haien garatze egokirako bitartekoak eta prozesuak bideratzea.		El responsable de los servicios es el Ayuntamiento de Arrasate y corresponde al Departamento de Juventud articular los medios y procesos para su adecuado desarrollo.
Adjudikaziodunak udal arduradunek zehazten dituzten orientabideak eta arauak jarraituko ditu. Orientabide horiek baldintza teknikoen plegu honetan zehaztutakoak dira, bai Arrasateko Udalak Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako dituen misioari, irizpideei eta printzipioei eta zehar lerroei jarraikiz, bai zerbitzu motei, jarduera esparruei eta abarrei jarraikiz.		La empresa adjudicataria seguirá las orientaciones y normas que determinen los responsables municipales. Estas orientaciones son las especificadas en este pliego de condiciones técnicas, tanto atendiendo a la misión, criterios y principios y líneas transversales del Ayuntamiento para la Promoción de la Infancia, la Adolescencia y la Juventud, como a los tipos de servicios, ámbitos de actuación, etc.
Zerbitzuak eskaintzean, bi esparru handi bereizi behar dira: alde batetik, erabiltzaileekin zuzeneko arretan egin behar den lana (arreta presentziala eta arreta birtuala) eta, bestetik, barruko lana izenaz biltzen den lan multzoa (planifikazioa, koordinazioa, ebaluazioa, prestakuntza, e.a.).		En la prestación de los servicios, se diferencian dos grandes ámbitos: por un lado, el trabajo a desarrollar desde la atención directa (atención presencial y virtual) con las personas usuarias y, por otro, el conjunto de tareas englobadas en lo que se denomina trabajo interno (planificación, coordinación, evaluación, formación, etc.).
5.1. Zuzeneko arreta.		**5.1. Atención directa.**

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

Erabiltzaileei eskainiko zaizkie agiri honen hasieran aipatu diren sei jarduera motak edo jarduera esparruak. 6 jarduera eremu hauek zerbitzuan proposatzen diren helburuak lortzeko lanabesak edo tresnak dira.		Desde cada uno de los servicios se ofrece a las personas usuarias los seis tipos de actuación o áreas de acción mencionadas al comienzo del documento. Estas 6 líneas de actuación son las herramientas o instrumentos para ir logrando los objetivos que se plantean en cada uno de los servicios.
Jarduera eremu hauek presentzialki eta birtualki landuko dira. Honela, zerbitzu bakoitzean arreta orduak planifikatuko dira Gaztematikaren baitan egindako eskuhartze birtualaren lanketa oinarritzat hartuz.		Estos ámbitos de actuación se trabajarán tanto presencial como virtualmente. Así, en cada servicio se planificarán las horas de atención teniendo como referencia la propuesta sobre intervención virtual elaborada en el marco de Gaztematika.
Kontuan hartuta, alde batetik, adin tarte desberdinak, eta bestetik, hartzaileen ezaugarriak adinaren arabera aldatzen doazela, jarduera esparruei emango zaien lehentasuna ere aldatu egingo da, eta erabiltzaileen premietara egokituko dira. Ildo horretatik, Haurrentzako Zerbitzuaren muina aisia hezitzailea izango da. Nerabeen Zerbitzuari dagokionez, aldiz, aisia hezitzailearen esparruak garrantzitsua izaten jarraitzen badu ere, beste esparru batzuek indar handiagoa hartuko dute, hala nola, "akonpainamenduak" edo "gazteen adierazpenerako eta partaidetzarako kanalak". Horrexegatik, arreta adin bakoitzean berariazkoak eta bereziak diren trantsizioei egokituko zaie, zerbitzuen jarraikortasuna oinarritzat harturik.		Teniendo en cuenta las diferentes franjas de edad y que las características de las personas destinatarias varían en función de la edad, el grado en que se prioricen las áreas de actuación también variará y se adaptará a las necesidades de éstas. En este sentido, el núcleo central en el Servicio para la Infancia será el del ocio educativo. En cambio, en el Servicio para Adolescentes, aunque el área de actuación de ocio educativo sigue siendo importante, otras áreas van tomando más fuerza como son las acciones de "acompañamiento" y "canales para la expresión y la participación juvenil". Por tanto, la atención se irá adaptando a las transiciones propias y específicas de cada una de las fases, teniendo como base el continuo de los servicios.
Besteak beste, zerbitzuetako eskaintzak honako hauek hartuko ditu barne: antolatutako jarduerak, antolatu gabeko jarduerak, lantegiak, ikastaroak, proiekzioak, ikuskizunak, hitzaldiak, irteerak, herriko ekimenetan parte hartzea (jaiak, txapelketak, errebindikazio egunak, elkarteen egitarauak, …), erabiltzaile ez diren haur eta nerabeei zuzendutako ekintzak, e.a.		Entre otras, la oferta de los servicios incluirá: actividades organizadas y no organizadas, talleres, cursos, proyecciones, espectáculos, charlas, salidas, participación en iniciativas locales (fiestas, campeonatos, jornadas reivindicativas, programas de asociaciones, …), actividades dirigidas a quienes utilizan y a quienes no utilizan los servicios, etc.

Antolatutako jarduerez gain, programatzerakoan, hainbat une gorde beharko dira erabiltzaileek libreki jardun dezaten, modu askean jolastu, hitz egin edo atseden hartzeko. Baina programazioaren oinarria hartzaileen eskaeren eta premien azterketa etengabea izango da.		Además de las actividades organizadas, la programación deberá reservar momentos para la actividad libre de las personas usuarias, de juego libre, conversación o descanso. Pero la programación siempre tendrá como base el análisis constante de las demandas y necesidades de las personas destinatarias.
Hezitzailearen eta hezigaiaren arteko harremana eta baita erabiltzaileen artekoa ere, lan tresna nagusia izango da. Horrexegatik, ezinbestekoa izango da erabiltzaile bakoitzaren berariazko esparruak eta guneak errespetatzea, baina uneoro, hezitzaileen hurbiltasun enpatikoa eta erreferentziazko ezaugarria mantenduta.		La relación educativa, tanto entre personal educador y quienes utilicen el servicio, como entre las personas usuarias, será la herramienta principal. El aspecto relacional es unos de los ejes centrales de los servicios. Por tanto, será básico respetar los ámbitos y espacio propios de cada persona usuaria, pero construyendo y manteniendo en todo momento la cercanía empática y referencialidad del personal educador.
Aurrez aurreko arreta eta eskuhartzea ematea ezinezkoa litzatekeen kasuetan eta bestelako ezohiko egoerei aurre egiteko, lizitatzaileak udalari zerbitzua modu telematikoan emateko proposamena luzatuko dio, aurrez aurkezturiko plangintza baten baitan eta beti ere udalaren aurretiko oniritziarekin.		En aquellos casos en los que no fuera posible la atención e intervención presencial y para hacer frente a situaciones excepcionales, la empresa licitadora propondrá al ayuntamiento la prestación del servicio de forma telemática, en el marco del planeamiento previamente presentado y siempre con la aprobación previa del ayuntamiento.
5.2. Barruko lana.		**5.2. Trabajo interno.**
Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuek izan behar dute planifikatutako espazioak, barnean antolatuak eta besteekin koordinatuak. Horrela izateko funtsak ezarri beharko dituzte lantalde biek.		Los Servicios para la Infancia y la Adolescencia han de ser espacios planificados, organizados internamente y coordinados con otros. Ambos grupos de trabajo establecerán las bases para ello.
5.2.1. Planifikazioa.		**5.2.1. Planificación.**
Planifikazioa prozesu bat da, zeinaren bidez, eta hainbat aurrekari jakin kontuan hartuta (zerbitzuen aurretiazko ebaluazioak, Gazteria Sailaren plangintza, erabiltzaileek egiten		La planificación es el proceso mediante el cual, partiendo de unos determinados antecedentes (evaluaciones previas de los servicios, planificación del Área de Juventud, propuestas y

dituzten proposamenak eta balorazioak, errealitatearen azterketa eta haurren eta nerabeen premiak), erabakiak hartzen baitira, lortu nahi diren helburuak nahiz helburu horiek lortzeko modua zehazteko.		valoraciones realizadas por las personas usuarias, análisis de la realidad y de las necesidades de los niños, niñas y adolescentes) se toman decisiones que permiten establecer tanto los objetivos que se quieren alcanzar como la manera de alcanzarlos.
Plangintzan, helburuak ez ezik, zerbitzuak egiten dituen jarduerak ere jasoko dira (zuzeneko arreta, programazioak, barruko lanak, e.a.). Zerbitzuetan hiru planifikazio egingo dira: ikasturtekoa, hiruhilekoa eta hilekoa. Plangintza Gazteria teknikariarekin adostu beharko da. Ikasturteko planifikazioa irailean aurkeztuko da, urteko egutegiarekin batera.		La planificación, además de los objetivos, incluirá también las actividades que desarrolla cada uno de los servicios (atención directa, programaciones, tareas internas, etc.). En los servicios se realizarán tres planificaciones: de curso, trimestral y mensual. La planificación deberá ser acordada con la técnica de Juventud. La planificación de curso se presentará en septiembre, junto con el calendario del curso.
Arreta berezia eskainiko zaio plangintzaren izaera parte hartzaileari. Planifikatu beharko da nola sustatu haurren eta nerabeen parte hartzea zerbitzuetako kudeaketaren atal ezberdinetan.		Se prestará especial atención al carácter participativo de la planificación. Deberá planificarse el modo de promocionar la participación de niñas, niños y adolescentes en los diferentes apartados de la gestión de los servicios.
Programazioan kontuan hartuko dira kontsumo kritikoarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin zerikusia duten ekimenak; adibidez, parte hartzea sustatuko da mugikortasun iraunkorraren astean, zuhaitz egunean, e.a.		En la programación deberán considerarse las iniciativas relacionadas con el consumo crítico y el respeto al medio ambiente; por ejemplo, se impulsará la participación en eventos tales como la semana de la movilidad sostenible, el día del árbol, etc.
5.2.2. Ebaluazioa.		**5.2.2. Evaluación.**
Ebaluazioa prozesu bat da, bere baitan zerbitzu bakoitzari, horien koordinazioari eta inguruneari buruzko informazioa lortzeko eta prozesatzeko egiten den guztia hartzen duena, eta jarduera ziklo berri bati aurre egiteko deskribapenak, azterketak eta balorazioak egiteko burutzen dena.		La evaluación es el proceso que incluye todo lo que se hace para obtener y procesar información de cada uno de los servicios, de su coordinación, y del entorno, con el fin de obtener descripciones, análisis y valoraciones que permitan encarar un nuevo ciclo de actuación.
Ebaluazioa jarraitua eta integratua izango da eta une ezberdinak aurre ikusiko ditu: eguneroko		La evaluación será continua e integrada y se preverán diferentes momentos: evaluación diaria,

ebaluazioa, hiruhilekoa eta urtekoa. Eguneroko ebaluazioa egingo da dagokion eguneko fitxa betetzean. Hiru hilean behin, ebaluazio txostenak aurkeztuko dira udalean, txosten bana zerbitzuko, eta dagozkien balioespenak egin ondoren, hurrengo hiruhilekorako plangintzak zehaztuko dira elkarlanean. Urteko txostenak ikasturte bukaeran aurkeztuko dira.		trimestral y anual. La evaluación diaria será llevada a cabo rellenando la correspondiente ficha diaria. Trimestralmente, se presentará al ayuntamiento un informe de evaluación por cada servicio y, una vez valorados, se concretarán conjuntamente las planificaciones para el siguiente trimestre. Los informes anuales se presentarán a final del curso.
Ebaluazio txostenetan zerbitzuen funtzionamenduari buruzko datuak jasoko dira: datu kuantitatiboak (estatistikoak, asistentziari buruzko erregistroak, jardueretako partaidetzari buruzko datuak, baliabide materialak, …), datu kualitatiboak (erabiltzaileen asebetetze maila, zerbitzuei buruzko iritzia, parte hartzeko erak, …) eta baita zerbitzuak hobetzeko proposamenak ere.		En los informes de evaluación se recogerán los siguientes datos sobre los servicios: datos cuantitativos (estadísticos, de registro de asistencia, de participación en las actividades, recursos materiales, …), datos cualitativos (nivel de satisfacción de las personas usuarias, opinión sobre los servicios, formas de participación, …) y propuestas de mejora de los servicios.
Aipatutako ebaluazio txosten horiez gain, emakidadunak aurkeztu beharko du gastuen eta diru sarreren balantzea, zerbitzuetarako egindako erosketei eta burututako ekintzei dagokiena. Balantze hauek hiru hilero aurkeztu beharko dira eta udaleko Gazteria sailak oniritzia eman beharko die.		Además de los informes de evaluación citados, la empresa adjudicataria deberá presentar el balance de gastos e ingresos correspondientes a las compras realizadas para los servicios y a las actividades desarrolladas. Estos balances se deberán presentar con carácter trimestral y deberán tener el visto bueno del área de Juventud.
5.2.3. Koordinazioa.		**5.2.3. Coordinación.**
Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuen martxa egokirako derrigorrezko eginkizuna da koordinazioa. Haurren eta nerabeen beharrak eta interesak anitzak izanik, horiei erantzuteko arlo eta eragile ezberdin askorekin batera elkarlanean aritu beharko da.		La coordinación es una tarea obligatoria para la buena marcha de los Servicios para la Infancia y la Adolescencia. Dado que las necesidades e intereses de niñas, niños y adolescentes son múltiples y diversos, para dar respuesta a los mismos habrá que trabajar juntamente con distintas áreas y agentes diversos.
Barne koordinazioa.		**Coordinación interna.**
Zerbitzu bakoitzeko lan taldea astero bilduko da zerbitzuaren jarraipena egiteko: egindako esku		El equipo de trabajo de cada servicio se reunirá semanalmente para realizar el seguimiento del

hartzea baloratu, hurrengoa prestatu, erabiltzaileen premiak antzeman, e.a. Barne komunikazioari arreta berezia eskainiko zaio eta langile guztiei dagokien zerbitzuan kokatzeko eta lan egiteko beharrezko informazioa emango zaie. .		mismo: valorar la intervención realizada, preparar la siguiente, detectar las necesidades de las personas usuarias, etc. Se prestará especial atención a la comunicación interna y se proporcionará a todo el equipo la información precisa para ubicarse y trabajar en el servicio correspondiente.
Zerbitzu bien arteko koordinazioa ere antolatuko da, bien arteko jarraikortasuna eta koherentzia bermatzeko, batetik besterako trantsizioa lantzeko eta ikasturteko elkarlana zehazteko. Gutxienez, urtean bi aldiz elkartuko dira.		También se organizará la coordinación entre ambos servicios para garantizar la continuidad y coherencia entre ambos, para tratar la transición de uno a otro y concretar el trabajo conjunto de cada curso. Celebrarán un mínimo de dos reuniones anuales.
Udalarekiko koordinazioa.		Coordinación con el ayuntamiento.
Udalarekin bilera mota hauek burutuko dira:		Con el ayuntamiento se celebrarán los siguientes tipos de reuniones:
Hamabostero, zerbitzuetako jarraipen bilerak, dagokion zerbitzuko koordinatzailearen eta udaleko gazteria teknikariaren parte hartzearekin. Beharren arabera, udaleko beste sail batzutako teknikariekin ere bilduko dira (kultura, hezkuntza, berdintasuna, aniztasuna, ingurumena, euskara, …).		Quincenalmente, reuniones de seguimiento de los servicios, con la participación de la coordinadora o coordinador del correspondiente servicio y la técnica municipal de Juventud. Según las necesidades, también se reunirán con personal técnico de otras áreas municipales (cultura, enseñanza, igualdad, diversidad, medioambiente, euskara, …).
Hiru hilero, zerbitzuak ebaluatzeko bilerak egingo dira, zerbitzu bakoitzeko koordinatzailea eta arreta zuzeneko langileak, udaleko Prebentzio, Aniztasun eta Gazteria teknikariekin.		Trimestralmente, reuniones de evaluación de los servicios, con el coordinador o coordinadora, personal de atención directa del correspondiente servicio y las técnicas municipales de Prevención, Juventud y Diversidad.
Haur eta nerabeei begirako lana burutzen duten udal zerbitzuekin ere koordinazio uneak zehaztuko dira, sustapenaren ikuspegia txertatzeko, eta eskaintza artikulatua eta koherentea izate aldera: Gazteentzako Informazio Zerbitzua, Kale heziketa, Sexologia		También se concretarán espacios de coordinación con los servicios municipales que trabajan con las niñas, niños y adolescentes, para que incluyan la perspectiva de la promoción, y constituyan una oferta articulada y coherente: Servicio de Información Juvenil, Educación de Calle, Servicio

Zerbitzua, Euskaltegia, Kirol saila.		de Sexología, Euskaltegi, departamento de Deporte.
Premia bereziak dituzten haurrei eta nerabeei eskaintzen zaien arretaren jarraipena egiteko, zerbitzuetako koordinatzaileek eta aniztasuneko dinamizatzaileak koordinatuko dira familiekin, dagokion udal zerbitzuekin (gizarte langileekin, familia eta kale hezitzaileekin, …) edota kasuaren arabera dagozkion beste profesionalekin (irakaskuntza, osasuna, …). Horrez gain, zerbitzuetan kezkak sortarazten dituzten haurrei eta nerabeei arreta berezia eskaintzeari begira, koordinazio bilerak burutuko dira udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin.		De cara al seguimiento de la atención de las niñas, niños y adolescentes con necesidades especiales, se reunirán las coordinadoras de los servicios y el dinamizador o dinamizadora de diversidad con las familias, con el servicio municipal que se estime oportuno (trabajadoras sociales, personal de educación de calle y de familia, …) y/o con los profesionales que en cada caso corresponda (enseñanza, salud, ...). Además, al objeto de prestar una atención especial a las niñas, niños y adolescentes que desde los servicios se estime oportuno, se celebrarán reuniones de coordinación con el personal técnico de los Servicios Sociales municipales.
Bilerez gain, udalaren, enpresa adjudikaziodunaren eta zerbitzuak eskaintzen dituen taldearen arteko harremanak arinak izango dira, izan posta elektronikoz, telefonoz, e.a.		Además de las reuniones, la coordinación entre el ayuntamiento, la empresa adjudicataria y el equipo que presta los servicios será fluida, ya sea vía mail, teléfono, etc.
Kanpo koordinazioa.		**Coordinación externa.**
Beste sistema batzuekiko koordinazioa:		Coordinación con otros sistemas:
Herrian nahiz eskualdean, adin tarte berarekin lan egiten duten sistemekin, zerbitzuekin eta erakundeekin koordinatuko dira, maiztasun eta helburu jakin batzuekin.		Se coordinarán con los sistemas, servicios y entidades que trabajan con la misma franja de edad a nivel local o comarcal, con una frecuencia y objetivos determinados.
Beste eragile batzuekiko koordinazioa:		Coordinación con otros agentes:
Koordinazioa sustatuko da haurrekin eta nerabeekin lotura duten eragileekin eta zerbitzuen lanerako interesgarriak direnekin, besteak beste eragile hauekin: guraso eta tutoreak, herriko kultura eta aisialdi taldeak, e.a.		Se fomentará la coordinación con los agentes relacionados con las infancia y adolescencia y con aquellos que se consideren de interés para el trabajo de los servicios, entre otros, con los siguientes: padres, madres y tutores, grupos culturales y de ocio de ámbito local, etc.

Zerbitzuek arreta berezia eskainiko diote familiekiko harreman iraunkorra izateari, eta inguruan presente dauden beste eragile eta zerbitzuekiko elkarlana eta sare lanari.		Los servicios prestarán una especial atención a la relación permanente con las familias y a la colaboración y trabajo en red con los agentes y servicios de otros ámbitos presentes en el entorno.
5.2.4. Komunikazioa.		**5.2.4. Comunicación.**
Adjudikazioduna arduratuko da zerbitzuen eskaintzaren eta jarduera zehatzen zabalkundea egiteaz eta hainbat kanal ezarriko dira informazioaren eta zerbitzuaren erabiltzaileen eta hartzaileen arabera (udalaren webgunea, prentsa, sare sozialak, …).		La empresa adjudicataria se responsabilizará de la difusión de la oferta y actividades concretas de los servicios y se establecerán diferentes canales en función las personas usuarias y destinatarias de la información y del servicio (página web municipal, prensa, redes sociales, …).
Udalaren logotipoa txertatu beharko da argitaratzen diren informazio euskarrietan (kartelak, esku orriak, blogak, e.a.) eta egindako komunikazioetan (albisteak, prentsaurrekoak, e.a.), herritarrei jakinarazteko zerbitzuen titularra Arrasateko Udala dela.		Se deberá incluir el logotipo del ayuntamiento en los diferentes soportes informativos que se publiquen (carteles, folletos, blogs, etc.) y en las comunicaciones realizadas (noticias, ruedas de prensa, etc.), al objeto de informar a la ciudadanía que el titular de los servicios es el Ayuntamiento de Arrasate.
Gainera, zerbitzuek era aktiboan jardungo dute, udalarekin batera, Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako udal politikaren zabalkunde orokorra diseinatzeko eta egiteko.		Además, los servicios colaborarán de manera activa con el ayuntamiento en el diseño y ejecución de la difusión general de la política municipal de Promoción de la Infancia, Adolescencia y Juventud.
5.2.5. Ezagutzaren eta kalitatearen kudeaketa.		**5.2.5. Gestión del conocimiento y de la calidad.**
Lantaldeek beharrezkotzat hartzen diren zerbitzuen kudeaketa hobetzea xede duten prozeduretan eta metodoetan parte hartuko dute, eta prozedura bihur daitezkeen prozesuak estandarizatuko dituzte.		Los grupos de trabajo participarán en los procedimientos y métodos dirigidos a mejorar la gestión de los servicios que se consideren necesarios, estandarizando aquellos procesos que puedan convertirse en procedimientos.
Era berean, Gipuzkoako lurraldean, Gaztematika esparruaren baitan sortzen diren foroetan parte hartuko dute lantaldeek, antzeko zerbitzuetan egiten diren dinamiken berri izan dezaten,		Así mismo, participarán en los foros creados a nivel de territorio de Gipuzkoa dentro del marco Gaztematika, de modo que conozcan las dinámicas que se desarrollan en servicios

zerbitzuentzako interesekoak diren eztabaidetan parte har dezaten eta Arrasateko zerbitzuen ikuspegia eman dezaten.		similares, participen de los debates en cuestiones de interés para los servicios y aporten la visión de los servicios de Arrasate.
Oro har, zerbitzuetako langileen etengabeko prestakuntza adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da. Hala ere, udalak eskaini ahalko die langileei aholkularitza edota prestakuntza lehentasunezkotzat jotzen dituen zenbait gairen inguruan.		La formación continua de las personas trabajadoras de los servicios será, con carácter general, responsabilidad de la empresa adjudicataria. No obstante, en aquellos temas que considere prioritarios, el Ayuntamiento podrá ofrecer asesoría y formación a los equipos de trabajo.
5.3. Zehar lerroak.		**5.3. Líneas transversales.**
Zerbitzuetako zehar lerro nagusiak izango dira euskara, inklusioa eta berdintasuna. Jarduera guztietan eta jarraikortasunez garatuko dira, jarraian azaltzen diren irizpideak jarraiki.		Las principales líneas transversales de los servicios serán el euskara, la inclusión y la igualdad. Se desarrollarán en todas las actividades y con continuidad, siguiendo los criterios que a continuación se exponen.
Zehar lerroak txertatuko dira zerbitzuetako plangintzan eta ebaluazioan. Kontuan hartu beharko dira arlo horietan udalak onartuta dituen protokoloak, lan ildoak eta planak: Arrasateko Udal Harrera Protokoloa, Berdintasun arloko lan ildoak eta Euskara plana, besteak beste.		Se incorporarán las líneas transversales en la planificación y evaluación de los servicios. Se tendrán en cuenta los protocolos, líneas de trabajo y planes aprobados por el ayuntamiento en dichas áreas: Protocolo Municipal de Acogida, líneas de trabajo del área de Igualdad y Plan de Euskara, entre otros.
Euskara, inklusioa eta berdintasuna elkar osatu eta indartzen diren printzipioak dira eta, era berean, zerbitzuen jardunbidea eta ekintzak orientatu eta dinamizatuko dituzte.		El euskara, la inclusión y la igualdad son principios que se complementan y refuerzan entre sí, y orientarán y dinamizarán también la actuación y actividades de los servicios.
5.3.1. Euskara.		**5.3.1. Euskara.**
Euskara izango da zerbitzuetako hizkuntza. Batez ere erabilera soziala indartzeko lana egingo da, haur eta nerabeei euskaraz bizitzeko aukera erreala eskaintzeko. Horretarako, beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: langile elebidunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazioa, e.a.		El euskara será el idioma de los servicios. Se impulsará principalmente su uso social, al objeto de ofrecer a las niñas, niños y adolescentes una oportunidad real de vivir en euskara. Se garantizarán todas las condiciones necesarias para ese fin: personal trabajador bilingüe, material en euskara, planificación de la promoción de su uso,

		etc.
Ekipamendu eta erabiltzaile bakoitzaren hizkuntz errealitatea kontutan hartuta, planak eta estrategiak inplementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, bai erabiltzaile eta langileen artean eta baita haurren eta nerabeen artean ere.		Se implementarán planes y estrategias para fomentar su utilización, tanto entre las personas usuarias entre sí, como entre ellas y el personal trabajador, teniendo en cuenta la realidad lingüística de cada equipamiento y cada persona usuaria.
Zentzu berean, zerbitzuetatik bilatuko da eten barik haur eta nerabeek izatea bizipen eta jarrera positiboak euskararekiko, eta euskal kultura ezagutzea.		En el mismo sentido, desde los servicios se procurará constantemente que las niñas, niños y adolescentes tengan vivencias y actitudes positivas hacia el euskara y conozcan la cultura vasca.
Haurrentzako Zerbitzuan antolatuko dira jolas saio irekiak familiei zuzenduak, haur eta guraso edo tutoreen artean euskararen transmisioa sustatzeko.		El Servicio para la Infancia organizará sesiones de juego abiertas dirigidas a las familias, al objeto de impulsar la transmisión del euskara entre padres, madres o tutores y las niñas y niños.
5.3.2. Inklusioa.		**5.3.2. Inclusión.**
Erabiltzaileen aniztasuna kontuan izango da (adina, sexua, jatorria, sinesmena, gaitasuna, etab.) eta tratu eta aukera berdintasuna bermatuko da. Sustatuko da norbanako guztiak barnean sartzea eta elkarri eragitea, elkarrekin bizitzen ikastea eta gozatzea bultzatuz.		Se tendrá en cuenta la diversidad de las personas usuarias (edad, sexo, procedencia, creencias, capacidad, etc.) y se garantizará la igualdad de trato y oportunidades. Se impulsará la inclusión de todas las personas y la interacción entre ellas, fomentando un aprendizaje de convivencia y disfrute.
Zerbitzuak ahaleginduko dira arreta ematen haurren eta nerabeen premien eta gaitasunen arabera.		Desde los servicios se procurará atender a las niñas, niños y adolescentes según sus necesidades y capacidades.
Zerbitzuetan arreta berezia eskainiko zaie zailtasunak edo behar bereziak dituzten haur eta nerabeei (gizarte zailtasun egoerak, aniztasun funtzionala, jatorriz beste kultura batekoak direnak, …).		Se ofrecerá atención especial a quienes tengan dificultades o necesidades especiales (situaciones de dificultad social, diversidad funcional, a quienes proceden de otras culturas, …).
Intersekzionalitatea: zerbitzuetako erabiltzaileen ezaugarriak eta horien ondorioak kontuan		Interseccionalidad: se tendrán en cuenta las características de las personas usuarias de los

hartuko dira, generoagatik, sexu orientazioagatik, gaitasun aniztasunagatik, prekarietateagatik eta beste hainbat arrazoiengatik eman litezkeen balizko azpiratze egoerak saihesteko.		servicios y sus posibles consecuencias, para evitar situaciones de discriminación por razones de género, orientación sexual, diversidad de capacidades, precariedad, etc.
Zehar lerro honen garapenean elkarlana sustatuko da udaleko Gizarte Zerbitzuekin, Berdintasun, Aniztasun eta Prebentzio sailekin, Kale Heziketarekin, Sexologia Zerbitzuarekin, ikastetxeekin, e.a.		En el desarrollo de esta línea transversal, se impulsará la colaboración con los Servicios Sociales municipales, las áreas de Igualdad, Diversidad y Prevención, Educación de Calle, Servicio de Sexología, centros educativos, etc.
5.3.3. Berdintasuna.		**5.3.3. Igualdad.**
Kontutan hartuko da zer eragin eta ondorio dituen sexu bereizketak haur eta nerabeen sozializazio prozesuan eta genero ikuspegia txertatu beharko da zerbitzuen planifikazio, esku hartze eta ebaluazio lan guztietan. Azken helburua izango da garapen integrala bultzatzea, generoaren araberako estereotipo eta rolak baztertuko dituena eta baita bereizkeria mota oro ere.		Se tendrá en cuenta la influencia y consecuencias de la discriminación de sexo en el proceso de socialización de las niñas, niños y adolescentes, y se incluirá la perspectiva de género en todas las tareas de planificación, intervención y evaluación de los servicios. El objetivo final será impulsar un desarrollo integral que rechace los estereotipos y roles ligados al género, así como todo tipo de discriminación.
Haur eta nerabeen errealitatearen azterketan ezinbestekoa izango da genero ikuspegia aintzat hartzea, hau da, neska eta mutilen behar eta egoera ezberdinak jasotzea.		Será imprescindible considerar la perspectiva de género en el análisis de la realidad de la infancia y adolescencia, es decir, recoger las distintas necesidades y situaciones de las chicas y los chicos.
Era berean, sexu eta genero aniztasuna sustatuko da eta LGTBI+ kolektiboetan egon litezkeen haur eta nerabeentzako ere espazio seguruak izan daitezen.		Así mismo, se promoverá la diversidad sexual y de género, y que sean espacios seguros para niños, niñas y personas adolescentes pertenecientes o próximas a colectivos LGTBI+.
Zerbitzuetan jarduera hezkidetzailea egiten dela bermatuko da ondorengo alderdiak garatzerakoan: harremanak, komunikazioa, barne antolakuntza, espazioaren kudeaketa, esku hartzerako edukiak eta material pedagogikoak.		En los servicios se garantizará la coeducación en el desarrollo de los siguientes ámbitos: relaciones, comunicación, organización interna, gestión del espacio, contenidos para la intervención y material pedagógico.
6. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALAK.		**6. INFRAESTRUCTURAS Y RECURSOS MATERIALES.**

6.1. **Azpiegiturak.**		**6.1. Infraestructuras.**
Kontratua indarrean dagoen bitartean, udalak jarriko ditu zerbitzuak bideratu ahal izateko lokala eta oinarrizko ekipamendua.		Durante la vigencia del contrato, el ayuntamiento aportará los locales y el equipamiento básico para el desarrollo de los servicios.
Udalak zerbitzuetarako jarriko duen azpiegitura honakoa izango da:		Las infraestructuras que el ayuntamiento pone a disposición de cada servicio son:
Haurrentzako Zerbitzua egun, hiru ludotekak osatzen dute, hiru auzotan banatuta:		**El Servicio para la Infancia** actualmente lo conforman tres ludotecas, ubicadas en tres barrios:
• Santa Marina auzoko ludoteka: Galizia, 1A.		• Ludoteca del barrio Santa Marina: Galizia, 1A.
• Erdiguneko ludoteka: Okendo, 4.		• Ludoteca de la zona centro: Okendo, 4.
• Uribarri auzoko ludoteka: Usaetxe plaza, 6.		• Ludoteca del barrio Uribarri: Usaetxe plaza, 6.
• Plegu honen sarreran azaldu bezala, Haurrentzako Zerbitzuaren baitan, 2025-2026 ikasturtean **asteburuko aisialdi gune berri bat jarriko da martxan, 9-12 urte** bitarteko haurrei zuzendua, herriaren erdialdean, Azoka kalea, 4.		• Tal y como se indica en la introducción de este pliego, dentro del Servicio para la Infancia, el curso 2025-2026 se pondrá en marcha **un nuevo espacio de ocio de fin de semana destinado a las niñas y niños de 9 a 12 años** en la zona centro, en Azoka kalea, 4.
Aurreikuspena da aisialdi gune berri hau martxan jartzea ikasturtearen bigarren hiruhilekoan.		Se prevé que este nuevo espacio de ocio se pondrá en marcha el segundo trimestre del curso.
Nerabeentzako Zerbitzua osatzen dute hiru gaztetxokok eta gaztegune batek, lau ekipamendu guztira, lau auzotan:		**El Servicio para la Adolescencia** lo conforman tres gaztetxokos y un gaztegune, un total de cuatro equipamientos, en cuatro barrios:
• Musakola auzoko Gaztetxokoa: Elkano, 1 bis.		• Gaztetxoko del barrio Musakola: Elkano, 1 bis.
2025-2026 ikasturtean gaztetxokoa		El gaztetxoko se ubicará en este local a

lokal horretan kokatuko da (plegua idazteko unean lokaleko egokitze lanak hastear daude).		partir del curso 2025-2026 (en el momento de la redacción del presente pliego están a punto de comenzar los trabajos de acondicionamiento del local).
Probisionalki, lan horiek burutu bitartean, zerbitzua erabiltzen ari da auzoko alkatetzak utzitako Maisu Aranbarri plazako lokal bat.		De forma provisional, mientras se llevan a cabo dichos trabajos, el servicio está utilizando un local de la plaza Maisu Aranbarri, cedido por la alcaldía del barrio.
• San Andres auzoko Gaztetxokoa: Kurtzetxiki, 2.		• Gaztetxoko del barrio San Andrés: Kurtzetxiki, 2.
• Erguin auzoko Gaztetxokoa: Erguin, 27.		• Gaztetxoko del barrio Erguin: Erguin, 27.
• Erdiguneko Gaztelekua: Nafarroa etorbidea, 12 B.		• Gazteleku de la zona centro: Nafarroa etorbidea, 12 B.
Lokal horietako funtzionamendu eta mantentze gastuak (garbiketa, argindarra, ura, gasa, hondakinen jasoketa, …) udalaren kontura izango dira.		Los gastos de funcionamiento y mantenimiento de estos locales (limpieza, energía eléctrica, agua, gas, recogida de residuos, …) correrán a cargo del ayuntamiento.
Udalak hornituko ditu ekipamenduak, beharrezkoak diren oinarrizko baliabide material guztiekin, zerbitzuak modu egokian eskaini ahal izateko.		El ayuntamiento equipará los servicios con los recursos materiales básicos necesarios para su adecuado funcionamiento.
Biltegia. Nafarroa etorbidea, 23 MI-3 lokalean zerbitzu bietako baliabide materialak gorde eta kudeatzeko biltegia.		**Almacén.** Nafarroa etorbidea, 23 MI-local 3, destinado a almacenaje y gestión de los recursos materiales de ambos servicios.
Inbentarioa. Adjudikaziodunak hasierako inbentarioa egingo du udalarekin batera, aipatu baliabide material guztiak jasoko dituena. Kontratuak dirauen duen bitartean, inbentarioa eguneratuta eduki beharko du adjudikaziodunak eta gehitzen joango da erosten diren elementu inbentariagarri guztiak.		**Inventario.** La empresa adjudicataria realizará un inventario inicial de dichos recursos materiales, en colaboración con el ayuntamiento. Durante la vigencia del contrato, deberá ir actualizando el inventario, añadiendo todos los elementos inventariables que se vayan adquiriendo.

Gainera, udalak adjudikaziodunaren esku jarriko ditu zerbitzuak behar bezala eskaintzeko beharrezkoak diren altzariak, jolasak eta jostailuak, informatikako ekipamendua eta programak.		Además, el ayuntamiento pondrá a disposición de la empresa adjudicataria el mobiliario, material lúdico, equipo informático y programas necesarios para la correcta prestación de los servicios.
Adjudikaziodunak zerbitzua eman behar duen lokalak udalaren titulartasunekoak dira. Enpresa adjudikaziodunaren langileen ohiko lantoki izango dira Haur eta Nerabeentzako Zerbitzuak eskainiko diren ludoteka, gazteleku eta gaztetxokoak. Enpresa adjudikazioduneko langileak eta udal langileek garbi bereizitako funtzioak dituzte eta, ondorioz, ezin da nahasmendurik sortu.		Los locales en los que la empresa adjudicataria debe prestar servicio son de titularidad municipal. El personal de esta empresa desempeñará su trabajo en los propios locales de las ludotecas, gazteleku y gaztetxokos donde se ofrecerán los Servicios para la Infancia y la Adolescencia. El personal de la empresa adjudicataria y el personal municipal realizan funciones claramente diferenciadas, por lo que no se pueden generar confusiones.
Beharrezko ekipo informatikoari eta programei dagokienez, eraginkortasun handiagoa dela eta, udalak beharrezkotzat jotzen du hura lagatzea, kontratua gauzatzen den bitartean. Kontratua amaitutakoan, adjudikaziodunak udalari itzuli beharko dizkio.		Respecto del equipo informático y programas necesarios, por razón de mayor eficacia, el ayuntamiento considera necesaria su cesión, estrictamente durante el periodo de ejecución del contrato. Una vez finalizados el contrato, el adjudicatario deberá devolverlos al ayuntamiento.
Kontratua amaitzen denean, ondare guztiak geratuko dira Arrasateko Udalaren esku.		Al finalizar el contrato, todos los bienes quedarán en manos del Ayuntamiento de Arrasate.
Zerbitzuetako instalazio eta materialak egoera onean eduki behar dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili.		Deberán mantenerse en buen estado las instalaciones y materiales de los servicios y utilizar los medios para su cuidado.
Langileen legez kanpoko lagapena saihesteko, kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak 2014ko apirilaren 29an emandako jarraibide egokiak zerbitzuak kontratatzerakoan.		Con el fin de evitar la cesión ilegal de personal trabajador, se han tenido en cuenta las instrucciones obre buenas prácticas en la contratación de servicios del Departamento de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco de 29 de abril de 2014.
Horrela:		Así:
Zerbitzua emateari atxikitako langileak enpresa		El personal adscrito a la prestación del servicio

adjudikazioduna mende egongo dira soil-soilik, eta hark bakarrik izango ditu enplegatzaile izateari datxezkion eskubideak eta betebeharrak. Horretarako, enpresa kontratistak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:		dependerá exclusivamente de la empresa adjudicataria, única que ostentará los derechos y obligaciones inherentes a su condición de empleadora. A tal efecto, la empresa adjudicataria asumirá las siguientes obligaciones
1. Enpresa adjudikaziodunari dagokio, soil-soilik, pleguetan eskatzen diren titulazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten langileak hautatzea. Langile horiek kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldeko kideak izango dira, eta kontratazio-organoak baldintza horiek betetzen direla egiaztatuko du.		1. Corresponde exclusivamente a la empresa adjudicataria la selección del personal que, reuniendo los requisitos de titulación y experiencia exigidos en los pliegos, formará parte del equipo de trabajo adscrito a la ejecución del contrato, sin perjuicio de la verificación por parte del órgano de contratación del cumplimiento de aquellos requisitos.
2. Enpresa adjudikaziodunak ahaleginak egingo ditu lantaldean egonkortasuna egon dadin, eta lantaldearen osaeran izandako aldaketak puntualak izan daitezen eta justifikatutako arrazoien ondorio izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatze aldera, eta une oro emango dio horren berri kontratazio-organoari.		2. La empresa adjudicataria procurará que exista estabilidad en el equipo de trabajo, y que las variaciones en su composición sean puntuales y obedezcan a razones justificadas, en orden a no alterar el buen funcionamiento del servicio, informando en todo momento al Órgano de Contratación.
3. Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartzen du kontratua gauzatzeaz arduratzen den lantaldeko langileen gainean enpresaburu orok duen zuzendaritza-ahalmena modu erreal, eraginkor eta jarraituan erabiltzeko betebeharra. Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentzia kasuetan langileak ordezkatzea, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea barne, hala dagokionean, lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, eta enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.		3. La empresa adjudicataria asume la obligación de ejercer de modo real, efectivo y continuo, sobre el personal integrante del equipo de trabajo encargado de la ejecución del contrato, el poder de dirección inherente a todo empresario. En particular, asumirá la negociación y pago de los salarios, la concesión de permisos, licencias y vacaciones, la sustitución de personal trabajador en casos de baja o ausencia, las obligaciones legales en materia de Seguridad Social, incluido el abono de cotizaciones y el pago de prestaciones, cuando proceda, las obligaciones legales en materia de prevención de riesgos laborales, el ejercicio de la potestad disciplinaria, así como cuantos derechos y obligaciones se deriven de la relación contractual entre personal empleado y empleador.

4. Enpresa adjudikaziodunak bereziki zainduko du kontratua gauzatzeari atxikitako langileek beren jarduera kontratuaren xede gisa baldintza-agirietan mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten eginkizunak gainditu gabe gauzatzen dutela.		4. La empresa contratista velará especialmente porque el personal adscrito a la ejecución del contrato desarrolle su actividad sin extralimitarse en las funciones desempeñadas respecto de la actividad delimitada en los pliegos como objeto del contrato.
5. Enpresa adjudikaziodunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du adingabea, bere langile-plantillakoa, eta honako betebehar hauek izango ditu, besteak beste:		5.La empresa adjudicataria deberá designar al menor una persona coordinadora técnica o responsable, perteneciente a su plantilla de personal, que tendrá entre sus obligaciones las siguientes:
a) Enpresa adjudikaziodunaren solaskide gisa jardutea, eta, horretarako, enpresa adjudikaziodunaren eta kontratuari atxikitako lantaldea osatzen duten langileen arteko komunikazioa bideratzea, alde batetik, eta erakunde kontratatzailearen artekoa, bestetik, kontratua gauzatzearen ondoriozko gaiei dagokienez.		a) Actuar como persona interlocutora de la empresa adjudicataria, canalizando la comunicación entre la empresa adjudicataria y el personal integrante del equipo de trabajo adscrito al contrato, de un lado, y la entidad contratante, de otro lado, en todo lo relativo a las cuestiones derivadas de la ejecución del contrato.
b) Kontratua gauzatzeaz arduratzen diren langileen artean banatzea lana, eta kontratatutako zerbitzua emateko behar diren aginduak eta jarraibideak ematea langile horiei.		b) Distribuir el trabajo entre el personal encargado de la ejecución del contrato e impartir a dicho personal trabajador las órdenes e instrucciones de trabajo que sean necesarias, en relación con la prestación del servicio contratado.
c) Lantaldea osatzen duten langileek agindutako eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.		c) Supervisar el correcto desempeño por parte del personal integrante del equipo de trabajo de las funciones que tienen encomendadas, así como controlar la asistencia de dicho personal al puesto de trabajo.
d) Kontratua gauzatzera atxikitako langileen opor-erregimena antolatzea, eta, horretarako, erakunde kontratatzailearen kontratuaren arduradunarekin behar bezala koordinatzea,		d) Organizar el régimen de vacaciones del personal adscrito a la ejecución del contrato debiendo a tal efecto coordinarse adecuadamente con el personal

zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzearren.		responsable del contrato de la entidad contratante, a efectos de no alterar el buen funcionamiento del servicio.
e) Kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran noizbehinka edo modu iraunkorrean izandako aldaketen berri ematea erakunde kontratatzaileari.		e) Informar a la entidad contratante acerca de las variaciones, ocasionales o permanentes, en la composición del equipo de trabajo adscrito a la ejecución del contrato.
3.2. **Bitarteko materialak.**		**6.2. Recursos materiales.**
Zerbitzuetako ekintzak burutzeko eta behar den materiala erosteko urteko diru kopuru bat zehaztuko da lizitazio prezioaren barruan. Zenbateko hori finkoa izango da eta ezin izango da behera hobetu. Kopuru hori derrigor erabili beharko du adjudikaziodunak ekintzetan edota material erosketan, eta 5.2.2. puntuko azken paragrafoan azaldu bezala, gastu horiei dagozkien zuriketa eta ordainagiriak hiru hilero aurkeztu beharko dizkio udalari, diru sarreren balantzearekin batera.		Dentro del precio de licitación, se fijará una cantidad económica anual para el desarrollo de las actividades de los servicios y para la compra del material necesario. Este importe será fijo y no podrá ser mejorado a la baja. Deberá ser utilizada obligatoriamente por la empresa adjudicataria para organización actividades o compra de material y, conforme a lo expuesto en el último párrafo del punto 5.2.2, la liquidación y recibos correspondientes a dichos gastos, junto con el balance de ingresos, deberán presentarse trimestralmente al ayuntamiento.
7. ZERBITZUETAKO LANTALDEAK ETA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK.		7. **EQUIPOS DE TRABAJO DE LOS SERVICIOS Y OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA.**
7.1. Lantaldeen osaera.		**7.1. Composición de los equipos de trabajo**
Zerbitzuak era egokian eskaini ahal izateko, adjudikaziodunak lantalde egokia jarriko du. Lantaldearen curriculum akademikoa eta profesionala egokia izango da agiri honetan jasotzen diren zerbitzuen beharrizanak		Para ofrecer los servicios de forma adecuada, la empresa adjudicataria establecerá un equipo de trabajo cuyo currículo académico y profesional sea apropiado para cubrir las necesidades de los servicios recogidas en este documento.
Arreta zuzeneko langileak.		**Personal de atención directa.**
Haurrentzako Zerbitzua: gutxienez hamahiru dinamizatzailek osatuko dute lantaldea. Horietatik hamarrek ludoteketan jardungo dute		**Servicio para la Infancia:** el grupo de trabajo de atención directa estará integrado al menos por trece dinamizadoras o dinamizadores. Diez

eta hiruk asteburuko aisialdi gunean. Jardun erdiko dedikazioa izango dute.		trabajarán en las ludotecas y tres en el espacio de ocio de fin de semana. Su dedicación será de media jornada.
Nerabeentzako Zerbitzua: gutxienez zazpi dinamizatzailek osatuko dute arreta zuzeneko lantaldea.		**Servicio para la Adolescencia:** el grupo de trabajo de atención directa estará integrado al menos por siete dinamizadoras o dinamizadores.
Aniztasuneko hezitzailea. Dinamizatzaileez gain, zerbitzu bietan aniztasuna lantzeko ardura izango duen hezitzaile batek osatuko du arreta zuzeneko lantaldea.		**Educador o educadora en diversidad**. Además del personal de dinamización, el equipo de atención directa estará formado por una persona educadora responsable del abordaje de la diversidad en ambos servicios.
Gune bakoitzean aritu behar den arreta zuzeneko langile kopuruari dagokionean, ondoko ratio hauek beteko dira:		En cada uno de los equipamientos se establecerá el número de trabajadores y trabajadoras de atención directa en función de las siguientes ratios:
Haurrentzako Zerbitzuan: hamabost haurreko dinamizatzaile bat arituko da.		En el Servicio para la Infancia: por cada quince niños o niñas, una dinamizadora o dinamizador.
Nerabeentzako Zerbitzuan: hogei nerabeko dinamizatzaile bat arituko da.		En el Servicio para la Adolescencia: por cada veinte adolescentes una dinamizadora o dinamizador.
Dinamizatzaileek izango dute arreta zuzenerako ordu kopuru bat eta beste bat barne lanerako, antolaketarako, koordinaziorako eta prestakuntzarako.		El personal dinamizador dispondrá de un número de horas para la atención directa y otro para el trabajo interno, organización, coordinación y formación.
Adjudikaziodunak antolatuko ditu langileen lan jardunak eta lan lekuak, une bakoitzaren behar eta egoera ezberdinen arabera.		La empresa adjudicataria organizará las jornadas y espacios de trabajo del personal en función de las distintas necesidades y situaciones de cada momento.
Koordinatzaileak: bi langilek beteko dute koordinazio lana, batek Haurrentzako Zerbitzuan eta besteak Nerabeentzako Zerbitzuan.		**Personal de coordinación:** habrá dos personas dedicadas a la coordinación, una en el Servicio para la Infancia y otra en el Servicio para la Adolescencia.
7.2.Langileen lanaldia.		**7.2 Dedicación del personal trabajador.**

Zerbitzuetako dinamizatzaileen gutxieneko dedikazioa izango da asteko 20 ordukoa.		La dedicación del personal dinamizador de los servicios será al menos de 20 horas semanales.
Aniztasuneko hezitzailearen gutxieneko dedikazioa izango da asteko 30 ordukoa.		La dedicación mínima del educador o educadora en diversidad será de 30 horas semanales.
Koordinatzaileen gutxieneko dedikazioa izango da asteko 22,5 ordukoa.		La dedicación mínima del personal de coordinación será de 22,5 horas semanales.
Asteburuko aisialdi gune berria, 9-12 urtekoei zuzendua, 2025-2026 ikasturteko bigarren hiruhilekoan abian jartzea aurreikusten da. Hori horrela, bertan arituko diren hiru dinamizatzaileen dedikazioa fakturatu ahalko da soilik aisialdi gune berria martxan jarri baino hilabete lehenagotik aurrera.		Se prevé la puesta en marcha del nuevo espacio de ocio de fin de semana, destinado a las personas de 9 a 12 años, en el segundo trimestre del curso 2025-2026. Por ello, la dedicación de las tres personas dinamizadoras de este espacio de ocio solo podrá ser facturada a partir del mes anterior a su puesta en marcha.
7.3. Langileen prestakuntza baldintzak		**7.3.Condiciones de formación del personal trabajador.**
Zerbitzuetan jardungo duten langileek baldintza hauek bete beharko dituzte:		El personal encargado de los servicios deberá reunir las siguientes condiciones:
Dinamizatzaileak. C1 euskara maila edo baliokidea eta gutxienez 360 orduko lan esperientzia edo praktikak Haurrentzako edo Nerabeentzako Zerbitzuak dinamizatzen (ludotekak, haurtxokoak, gaztetxokoak, gaztelekuak, edo antzeko zerbitzuak, aisialdi hezitzailearen esparruan).		**Personal de dinamización**. Nivel de euskera C1 o equivalente y al menos 360 horas de experiencia laboral o prácticas en dinamización de Servicios para la Infancia o Adolescencia (ludotecas, haurtxokos, gaztetxokos, gaztelekus o servicios análogos en el ámbito del ocio educativo).
Aniztasuneko hezitzailea. C1 euskara maila edo baliokidea eta gutxienez 360 orduko lan esperientzia edo praktikak Haurrentzako edo Nerabeentzako Zerbitzuetan aniztasuneko hezitzaile gisa (ludotekak, haurtxokoak, gaztetxokoak, gaztelekuak, edo antzeko zerbitzuak, aisialdi hezitzailearen esparruan).		**Educador o educadora en diversidad**. Nivel de euskera C1 o equivalente y al menos 360 horas de experiencia laboral o prácticas como educador o educadora en diversidad en Servicios para la Infancia o Adolescencia (ludotecas, haurtxokos, gaztetxokos, gaztelekus o servicios análogos en el ámbito del ocio educativo).
Koordinatzaileak. C1 euskara maila edo baliokidea eta gutxienez 360 orduko lan		**El personal de coordinación** deberá acreditar nivel de euskera C1 o equivalente y experiencia

esperientzia Haurrentzako edo Nerabeentzako zerbitzuak koordinatzen (ludotekak, haurtxokoak, gaztetxokoak, gaztelekuak, edo antzeko zerbitzuak, aisialdi hezitzailearen esparruan).		laboral mínima de 360 horas en coordinación de Servicios para la Infancia o Adolescencia (ludotecas, haurtxokos, gaztetxokos, gaztelekus o servicios análogos en el ámbito del ocio educativo).
Haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, Delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute langile guztiek.		En cumplimiento de lo establecido por la Ley 26/2015 de 28 de julio de 2015 sobre las modificaciones del sistema de protección a la infancia y adolescencia, todas las personas que trabajen en los servicios deberán presentar el certificado que acredita la no inscripción en el Registro Central de Delincuentes Sexuales.
Konplexutasun eta autonomia maila handiak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak izan beharko dira, bai koordinatzaileak eta baita aniztasuneko hezitzailea ere. Hori horrela, Gipuzkoako IV Lan Hitzarmeneko 2. Lanbide sailkapena dagokie.		Tanto el personal de coordinación como el de educación en diversidad, desempeñará tareas con alto nivel de complejidad y autonomía. Le corresponde, por ello, la clasificación profesional del grupo 2. Establecida en el IV Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa.
Dinamizatzaileei aplikatuko zaie gutxienez 3. Lanbide sailkapena.		Al personal de dinamización se le aplicará como mínimo la clasificación profesional del grupo 3.
Ordezkapenak eta langile berriak.		**Sustituciones y nuevas incorporaciones.**
Adjudikazioduna egin beharreko ordezkapenez arduratuko da, eta pertsona titularrek bete beharreko baldintza berberak bete beharko dituzte ordezkoek ere.		La adjudicataria se hará cargo de las sustituciones a realizar y las personas suplentes deberán cumplir los mismos requisitos que se exigen a las personas titulares.
Hasierako plantillan gertatzen diren aldaketa guztiek udalaren oniritzia izan beharko dute.		Cualquier cambio que pudiera producirse en la plantilla inicial deberá contar con el visto bueno del ayuntamiento.
Langileen gaitasunak:		Competencias del personal trabajador:
-Sare sozialak, testuinguruak, prozesuak eta hezkuntza- eta gizarte-baliabideak sortzea.		- Generación de redes sociales, contextos, procesos y recursos educativos y sociales.
-Gizarte eta Hezkuntza bitartekotza.		- Mediación social y educativa.

-Arrasateko haur eta nerabeentzako Hezkuntza programak eta proiektuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea.		-Diseño, implementación y evaluación de programas y proyectos educativos para las niñas, niños y adolescentes de Arrasate.
-Arrasateko gizarte eta Hezkuntza testuinguruak ezagutzea, aztertzea eta ikertzea.		-Conocimiento, análisis e investigación de los contextos sociales y educativos de Arrasate.
-Hezkuntza baliabideak kudeatzea, zuzentzea, koordinatzea eta antolatzea.		-Gestión, dirección, coordinación y organización de los recursos educativos.
Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak testuinguru formaletan eta ez formaletan aztertzea, ikuspegi inklusiboak eta desberdintasunak gainditzeko ikuspegiak erabiliz..		-Analizar los procesos de enseñanza y aprendizaje en los contextos formales y no formales, utilizando perspectivas inclusivas y de superación de las desigualdades.
-Talde testuinguruetako komunikazioaren oinarrizko elementuak identifikatzea, harreman hezitzaile egokia ezartzeko eta norberaren eta taldearen garapenerako komunikazio estrategia eraginkorrak ikasteko.		-Identificar los elementos básicos de la comunicación en contextos grupales, para establecer una relación educativa satisfactoria y aprender estrategias comunicativas eficaces para el desarrollo personal y grupal.
-Errealitatea interpretatzea Arrasaten gizarte eta Ingurumen problematikaren ikuspegitik, haurren eta nerabeen benetako beharrak identifikatu ahal izateko eta proposamen hezitzaileak egin ahal izateko iraunkortasunaren ikuspegitik.		-Interpretar la realidad desde el punto de vista de la problemática social y ambiental de Arrasate para poder identificar necesidades reales de las niñas, niños y adolescentes y hacer propuestas educativas en clave de sostenibilidad.
-Gizarte hezkuntzaren testuinguruetan profesionalki esku hartzea, Gizarte hezkuntzaren oinarri teoriko-praktikoetan; klabe etikoetatik eta deontologia profesionalaren errespetutik, genero ikuspegitik eta erantzukizun profesionaletik.		-Intervenir profesionalmente en contextos de la educación social, sobre las bases teórico-prácticas de la educación social; desde claves éticas y de respeto a la deontología profesional, con perspectiva de género y responsabilidad profesional.
7.4.Lantaldeen funtzioak.		**7.4. Funciones de los equipos de trabajo.**
Zerbitzuetako lantaldeen funtzioak hauek izango dira:		Las funciones de los equipos de trabajo serán las siguientes:
• Haurtzaroak eta Nerabezaroak.		• Infancias y Adolescencias.

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

-Haurren eta nerabeen beharrak ebaluatzeko prozesuetan parte hartzea.		-Participar en el proceso de evaluación de las necesidades de las niñas, niños y adolescentes.
-Haur eta nerabe guztien parte hartzea sustatzea zerbitzuetan eta haiei eragiten dieten eremuetan.		-Promover la participación de todas las niñas, niños y adolescentes en los servicios y en los ámbitos que les afectan.
-Haur eta nerabeen familiengana hurbiltzea.		-Acercarse a las familias de las niñas, niños y adolescentes.
-Haurtzaroaz eta nerabezaroaz arduratzen diren beste eragileei zerbitzuetan parte hartzen laguntzea.		-Facilitar que otros agentes que se ocupan de la infancia y la adolescencia participen en los servicios.
• Esku hartze hezitzailea:		• Intervención educativa:
-Haur eta nerabeen garapen integrala ahalbidetzea.		-Posibilitar el desarrollo integral de las niñas, niños y adolescentes.
-Familia inguruneak haur eta nerabeei eskaintzen dizkienez gain, beste hezkuntza aukera batzuk eskura izan ditzatela ahalbidetzea.		-Posibilitar el acceso a otras alternativas educativas además de las que el entorno familiar aporta a los niños, niñas y adolescentes.
-Bidelagun izatea		-Acompañamiento.
-Eguneroko eginbeharretan etengabeko autonomia garatzen laguntzea.		-Colaborar en el desarrollo de una autonomía continua en las tareas cotidianas.
-Haurren eta nerabeen hezkuntza berezitasuna ulertzea, hezteko, laguntzeko eta haiengan eragina izateko.		-Entender la singularidad educativa de niños, niñas y adolescentes, para educarles, ayudarles y ser efectivos.
-Bizitzako lehen etapentzat funtsezkoak diren irizpideak eta arreta moduak sistematizatzea.		-Sistematizar los criterios y los modos de atención fundamentales en las primeras etapas de la vida.
-Zerbitzuen zeharkako lerroak (euskara, inklusioa eta berdintasuna) sendotzea.		-Fortalecer las líneas transversales del servicio (euskara, inclusión e igualdad).
-Prestakuntza eta trebakuntza plana garatzen laguntzea.		-Colaborar en el desarrollo de plan de formación y capacitación.

Esp. kodea: 2025CHOZ0021 **Gaia:** HAUR ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA
Titularra: ARRASATEKO UDALA, Gazteria saila

-Zerbitzuen kalitatea bermatzeko konpromisoa hartzea.		-Adoptar el compromiso de garantizar la calidad de los servicios.
• Hezkuntza esparruak:		• Marcos educativos:
-Zerbitzuetako erabiltzaile bakoitzarekin harremanak sortzea.		-Establecer relación con cada persona usuaria de los servicios.
-Harreman ludikoa garatzea, baliabide eta jarduera desberdinetan loturak sortuz, gizartearen partaide izateko eta hezkuntza aukerak ahalbidetzeko.		-Desarrollar una relación lúdica, creando vínculo en recursos y actividades diferentes, para que sean partícipes socialmente, y posibilitar todas las opciones educativas.
-Haur eta nerabeen beharretan eta eskaeretan oinarritutako programazioa garatzea, haien motibazioen, kezken eta ekimenen arabera.		-Desarrollar una programación basada en las necesidades y demandas de las niñas, niños y adolescentes, en función de sus motivaciones, sus preocupaciones y sus iniciativas.
-Zerbitzuen ekintza arloak aztertzea, osatzea, proposamenak egitea eta garatzea.		-Análisis, elaboración, propuesta y desarrollo de las áreas de acción de los servicios.
-Familiei laguntzea.		-Ayudar a las familias
• Eremu komunitarioa:		• Ámbito comunitario:
-Komunitatean haur eta neraberenganako interesa piztea.		-Impulsar en la comunidad el interés por la infancia y adolescencia.
-Haur eta nerabeei buruzko ideia positiboak sortzen laguntzea komunitatean eta inguruan.		-Contribuir a generar ideas positivas sobre la infancia y la adolescencia en la comunidad y su entorno.
-Zerbitzuetan garatzen diren jarduera guztietan ikuspegi komunitarioa, osoa eta integratzailea txertatzea.		-Introducir en todas las actividades que se desarrollan en los servicios una visión comunitaria, integral e integradora.
-Zerbitzuen komunikazio beharretan eta zabalkundean laguntzea.		-Colaborar en las necesidades comunicativas y en la difusión de los servicios.
-Komunitatean parte hartzea, zerbitzuek eta		-Participar en la comunidad, para que tanto los

erabiltzaileek protagonismoa izateko.		servicios como las personas usuarias adquieran protagonismo.
-Sare lana bultzatzea, eraikitzea eta sustatzea.		-Promover, construir e impulsar el trabajo en red.
-Zerbitzuak komunitatean eta lurraldean txertatzen laguntzea eta komunitateko eragile izatea.		-Colaborar para que los servicios se integren en la comunidad y en el territorio, y a que sean agentes comunitarios.
• Besteekin koordinatuta:		• En coordinación con los demás:
-Herriko baliabideak eta zerbitzuak ezagutzea.		-Conocer los recursos y servicios de la localidad.
-Udaleko beste sail batzuen ezaugarriak eta jarduerak ezagutzea.		-Conocer las características y actividades de otros departamentos municipales.
-Haur eta nerabeen bizitza garatzen den erakunde desberdinetan partaidetzazko egiturak bultzatzea.		-Impulsar estructuras participativas en las diferentes instituciones donde se desarrolla la vida de las niñas, niños y adolescentes.
-Haur eta nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin koordinatzea.		-Coordinación con profesionales de otros recursos y sistemas que se ocupan de los niños, niñas y adolescentes.
-Sistemako zerbitzu desberdinen arteko etengabeko koordinazioa mantentzea.		-Mantener una coordinación continua con los diferentes servicios del sistema.
• Antolatutako Zerbitzuak:		• Servicios organizados:
-Zuzeneko esku hartzearen antolaketan modu aktiboan parte hartzea.		-Participar activamente en la organización de la atención directa.
-Datuak eta informazioa kudeatzea.		-Gestionar los datos y la información.
-Dagozkion administrazio lanak egitea.		-Realizar las labores administrativas correspondientes.
-Espazioen eta denboren antolaketa zaintzea.		-Cuidar la organización de los espacios y tiempos.
-Baliabide materialak kudeatzea.		-Gestionar los recursos materiales.

-Zerbitzuen jarraipena egiteko sortzen diren organoetan parte hartzea.		-Participar en los órganos que se creen para realizar el seguimiento de los servicios.
-Esku hartzea egiten duen lan taldeen koordinazioan parte hartzea.		-Participar en la coordinación de los grupos de trabajo encargados de la intervención.
-Zerbitzuen garapen teknikoan eta antolakuntzan parte hartzea.		-Participar en el desarrollo técnico y en la organización de los servicios.
• Planifikatutako Zerbitzuak:		• Servicios planificados:
-Zerbitzuen planifikazioan, sistemaren diseinuan eta lantzean parte hartzea.		-Participar en la planificación de los servicios, en el diseño y en la elaboración del sistema.
-Zerbitzuen programazioa eta eguneroko jarduera planifikatzea.		-Planificar la programación y la actividad diaria de los servicios.
-Zerbitzuen ebaluazioan parte hartzea.		-Participar en la evaluación de los servicios.
Funtzio guzti horiek betetzeko, langileek zeregin desberdinak izan ditzakete, adjudikaziodunak bakoitzaren funtzio eta lan jardunaren arabera, banatu ahal izango dituenak.		-Para llevar a cabo todas estas funciones, el personal tendrá diferentes tareas, que la adjudicataria podrá distribuir, en función de las funciones y jornada laboral de cada trabajador o trabajadora.
Koordinatzaileen funtzioak.		**Funciones del personal de coordinación.**
Zerbitzuetako lantaldeen koordinazioaren ardura izango dute. Dinamizatzaileei laguntza teknikoa, orientazioa eta bide laguntza emango dizkiete, beraien lana erraztuz. Zerbitzuen etengabeko jarraipena egingo dute. Honako hauek izango dira beren eginkizun nagusiak:		Serán las personas responsables de coordinar los equipos de trabajo de los servicios. Proporcionarán ayuda técnica, orientación y acompañamiento a las dinamizadoras y dinamizadores, facilitando su labor. Harán un seguimiento continuado de los servicios. Sus funciones principales serán:
-Zerbitzuen funtsatzea eta beharren ebaluazioa bideratu.		-Guiar la fundamentación de los servicios y la evaluación de necesidades.
-Zerbitzu bakoitzeko funtzionamendua eta antolaketa orokorra koordinatu.		-Coordinar el funcionamiento y organización general de cada servicio.
-Esku hartzearen analisi orokorra gidatu eta bere		-Guiar el análisis de la intervención y hacer su

jarraipena egin.		seguimiento.
-Dinamizatzaileen hasierako eta etengabeko prestakuntzan lagundu.		-Colaborar en la formación inicial y continua del personal dinamizador.
-Zerbitzuetako lantaldeak dinamizatu eta egitarauak eta ekintzak burutzeko laguntza teknikoa eta materiala eskaini.		-Dinamizar los equipos de trabajo y ofrecerles ayuda técnica y material para la ejecución de programas y actividades.
-Zerbitzuetatik burututako ekimenak, egitarauak eta ekintzak ebaluatzeko informazioa eta balorazioak jaso, lantaldearekin batera landu eta 5.2.2. atalean zehaztutako txostenak Udalari aurkeztu.		-Recoger información y valoraciones al objeto de evaluar las iniciativas, programas y actividades desarrolladas desde los Servicios, analizarlas conjuntamente con el equipo de trabajo y presentar al ayuntamiento los informes señalados en el apartado 5.2.2.
-Koordinazioaren atalean, 5.2.3. puntuan zehaztutako bileretan parte hartu (barne mailan, udalarekin, beste eragile eta zerbitzuekin).		-Participar en las reuniones fijadas en el apartado de la coordinación, punto 5.2.3 del presente documento (nivel interno, con el Ayuntamiento, con otros agentes y servicios).
-Zerbitzuen inguruko zabalkundeaz arduratu, Udalaren irizpideak jarraituta eta Gazteria sailarekin adostuta.		-Responsabilizarse de la difusión de los servicios, siguiendo los criterios del ayuntamiento y de forma consensuada con el departamento de Juventud.
-Sareko lan sistema komunitarioan parte hartzeko iniziatiba eta erantzukizuna agertu.		-Mostrar iniciativa y responsabilidad de cara a la participación en la red del sistema de trabajo comunitario.
-Zerbitzu bakoitzeko lantaldearen prestakuntza iraunkorrerako plangintza koordinatu.		-Coordinar el plan de formación permanente del equipo de trabajo de cada servicio.
-Zerbitzuen arteko elkarlana eta zubi lana sustatu.		-Promocionar la cooperación y trabajo en común entre los servicios.
8. ZERBITZUEN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK		**8. CALENDARIO Y HORARIOS DE LOS SERVICIOS.**
8.1.Haurrentzako Zerbitzua.		**8.1. Servicio para la Infancia.**
8.1.1. Okendo, Santa Marina eta Usaetxeko		**8.1.1. Las ludotecas de Okendo, Santa Marina**

ludotekak irailetik ekainera bitartean zabalduko dira, astelehenetik ostiralera, ikasturte bakoitzerako ezarriko den egutegiari jarraiki.		**y Usaetxe** se abrirán de septiembre a junio, de lunes a viernes, siguiendo el calendario que se establecerá para cada curso.
Ordutegia: 17:00-20:00. Azarotik otsailera, ludotekak 19:30etan itxiko dira.		**Horario:** 17:00-20:00. De noviembre a febrero, las ludotecas cerrarán a las 19:30.
"**Familian Jolasean" egitaraua**: neguko asteburuetan haurrek gurasoekin batera jolasteko guneak antolatuko dira. Testu ingurune ludiko eta hezitzaile bat eskaintzeaz gain, familia eredu ezberdinen parte hartzea eta haien arteko harremanak sustatuko dira.		**Programa "Familia Jolasean":** los fines de semana de invierno se organizarán espacios destinados al juego en familia. Además de ofrecer un entorno lúdico y educativo, se fomentará la participación de diferentes modelos de familia y la relación entre ellas.
8.1.2. Asteburuko aisialdi gunea 9-12: irailetik uztailera bitartean zabalduko da, egubakoitz, zapatu eta domeketan.		**8.1.2. Espacio de ocio de fin de semana 9-12:** se abrirá de septiembre a julio, los viernes, sábados y domingos.
Ordutegia: • egubakoitz eta zapatuetan: 17:00-21:00 • domeketan: 17:00-20:00		**Horario:** • viernes y sábados: de 17:00 a 21:00 • domingos: de 17:00 a 20:00
8.2.Nerabeentzako Zerbitzua		**8.2. Servicio para la Adolescencia**
8.2.1. Auzoetako Gaztetxokoak irailetik ekainera bitartean zabalduko dira, ikasturte bakoitzerako ezarriko den egutegiari jarraiki.		**8.2.1. Los Gaztetxokos de los barrios** se abrirán de septiembre a junio, siguiendo el calendario que se establecerá para cada curso.
Auzoetako gaztetxokoetako ordutegia: asteartetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara.		**Horario** de los gaztetxokos de los barrios: de martes a viernes, de 17:00 a 20:00.
8.2.2. Erdiguneko Gaztelekua irekiko da irailetik ekainera bitartean, egubakoitz, zapatu eta igandeetan, ikasturte bakoitzerako ezarriko den egutegiari jarraiki. Uztailean egitarau berezi bat antolatuko da, "Udaixe" opor garaiari egokitua.		8**.2.2. El Gazteleku de la zona centro** se abrirá de septiembre a junio, los viernes, sábados y domingos, siguiendo el calendario que se establecerá para cada curso. En julio se organizará una programación extraordinaria, "Udaixe", adaptada al periodo vacacional.
Ordutegia: • Ostiraletan 18:00-21:00 • Zapatu eta domeketan 17:00-21:00.		Horario: • Viernes 18:00-21:00 • Sábados y domingos 17:00- 21:00.

Opor garaietan egitarau bereziak antolatuko dira zerbitzu bietan, opor garai bakoitzari egokituak.		En los periodos vacacionales se organizarán programas específicos en ambos servicios, adaptados a cada periodo vacacional.
Adjudikaziodunak irailean aurkeztuko du zerbitzu bakoitzeko egutegi proposamena udaleko Gazteria sailean. Proposamena aztertu ondoren, udalak onartu edo zuzendu egingo du. Nolanahi ere, egutegiak udalaren onespena izan beharko du.		La empresa adjudicataria presentará en septiembre la propuesta de calendario para cada servicio en el departamento municipal de Juventud. Analizada la propuesta, el ayuntamiento procederá a su aprobación o rectificación. En todo caso, el calendario deberá contar con la aprobación del ayuntamiento.
Zerbitzuetako egutegi eta ordutegiak aldatu ahal izango dira herri mailan antolatutako ospakizunetan parte hartzeko, edo ezohiko programak antolatzen direnean. Adjudikaziodunak aldez aurretik adostu beharko ditu aldaketak udalarekin.		Los calendarios y horarios de ambos servicios podrán ser modificados para participar en celebraciones organizadas a nivel local, o cuando se organicen programas extraordinarios. La empresa adjudicataria deberá acordar previamente los cambios con el ayuntamiento.
9. ZERBITZUETAKO TARIFAK.		**9. TARIFAS DE LOS SERVICIOS.**
Zerbitzuetan parte hartzeko, ikasturte bakoitzean dagokion inskripzioa egin beharko da.		Para participar en los servicios, cada curso escolar habrá de realizarse la correspondiente inscripción.
Zerbitzu bietan parte hartzea doakoa izango da erabiltzaile ororentzat.		La participación en ambos servicios será gratuita para todas las personas usuarias.
Zerbitzu bietatik antolatzen diren jardueretan parte hartzeko, oro har, ez zaie inolako ordainketa gehigarririk eskatuko parte hartzaileei.		Con carácter general, no se requerirá efectuar ningún pago para participar en las actividades organizadas desde ambos servicios.
Salbuespen moduan, jarduera bereziak antolatzen direnean, hala nola irteerak, material berezia edota adituak kontratatzea eskatzen duten ekintzak, tarifa bat kobratu ahal izango da, beti ere, udalaren oniritziarekin.		Excepcionalmente, cuando se organicen actividades extraordinarias como salidas, actividades que requieren material especial o personal especializado distinto al adscrito al contrato, se podrá cobrar una tarifa o precio que deberá contar con el visto bueno del ayuntamiento.

Jarduera berezietan parte hartzeko tarifaren %10a baino ez dute ordainduko jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituzten bizikidetza unitateetako kideek: udal mailako edota Lanbide/SEPEko dirulaguntzak dituztenak, kale heziketa eta familia esku-hartzea programan parte hartzea eta Gizarte Zerbitzuek hautemandako beste edozein egoera.		Solo tendrán que abonar un 10% de la tarifa quienes pertenezcan a unidades de convivencia que cumplan alguno de los siguientes requisitos: ser beneficiaria de prestaciones municipales o de Lanbide/SEPE, participar en los programas de educación de calle e intervención familiar, o cualquier otra situación detectada por los Servicios Sociales.
Jarduera bereziengatik kobratutako zenbatekoak azaldu beharko ditu adjudikaziodunak hiru hilero aurkeztu beharreko txosten ekonomikoan.		La empresa adjudicataria reflejará las cantidades cobradas en concepto de actividades especiales en el correspondiente informe económico trimestral.
10. KONTRATUAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.		**10. CRITERIOS LINGÜÍSTICOS DEL CONTRATO.**
Udalaren Euskararen Erabilera Planak ezarritakoaren arabera, hizkuntza irizpide hauek aplikatu beharko ditu adjudikaziodunak:		De conformidad con el Plan de Uso del Euskara del Ayuntamiento, la empresa adjudicataria deberá aplicar los siguientes criterios lingüísticos:
a) Zerbitzua ematean, bermatu eta erraztu egingo da haurrek bertako eta berezko hizkuntzan, euskaraz alegia, arreta jasotzeko eta erabiltzeko duten eskubidea. Kontratistak ahozko komunikazioetan euskara erabiltzera joko du, beti ere, herritarren hizkuntza eskubideetan kaltetan izan gabe.		a) Durante la prestación del servicio, se garantizará y facilitará el derecho de los niños, niñas y adolescentes a ser atendidos y utilizar el euskera. La empresa adjudicataria utilizará el euskara en las comunicaciones verbales, siempre sin perjuicio de los derechos lingüísticos de la ciudadanía.
b) Dokumentazio idatziei dagokienez (txostenak, inprimakiak, oharrak, kartelak, esku-programak, iragarkiak, jakinarazpenak...) euskaraz edo ele bietan idatziko dira. Beti eduki bertsuak izan ohi dituztenak euskara hutsez, eta ele bietan egiten direnen kasuan, euskarari lehentasuna emango zaio, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik ere.		b) Respecto a la documentación escrita (informes, impresos, avisos, carteles, folletos, anuncios, notificaciones...), se redactará en euskara o bien en las dos lenguas. Aquellas cuyo contenido sea siempre parecido, únicamente en euskara, y en el caso de las que se realicen en las dos lenguas, se dará prioridad al euskara, tanto respecto a su ubicación (el texto en euskara sobre el texto en castellano) como a su tamaño.
c) Udala eta adjudikaziodunaren arteko harreman administratiboak (kontratua, fakturak, txostenak, …) euskaraz izango dira.		c) La relación administrativa entre el ayuntamiento y la empresa adjudicataria (contrato, facturas, informes, …) será en euskara.

d) Zerbitzuen jarduerari buruzko txostenak euskaraz aurkeztu beharko ditu enpresak.		d) La empresa deberá presentar los informes sobre la actividad de los servicios en euskara.
11. INGURUMEN IRIZPIDEAK		**11. CRITERIOS MEDIOAMBIENTALES**
Haur eta Nerabeentzako Zerbitzuen garapenak hainbat aspektu txertatu beharko du, hala nola kontsumo kritikoa eta ingurumenaren errespetua.		El desarrollo de los Servicios para la Infancia y la Adolescencia deberá incorporar aspectos de consumo crítico y de respeto al medio ambiente.
Adjudikaziodunak konpromisoa hartu beharko du ingurumen arau hauek jarraitzeko:		La empresa adjudicataria deberá comprometerse a seguir las siguientes pautas medioambientales:
a) Udalarekiko koordinazio lanetan:		a) En los trabajos de coordinación con el ayuntamiento:
- Erabakitzea zer dokumentazioa entregatu behar den inprimatuta edo formatu elektronikoan.		- Acordar qué documentación debe ser entregada impresa o en formato electrónico.
- Dokumentu inprimatuetarako, erabili paper % 100 birziklatua (gutxienez %65 kontsumo ostekoa) eta klororik gabekoa.		- Para la documentación impresa, utilizar papel 100% reciclado (mínimo 65% post-consumo) y totalmente libre de cloro.
b) Zerbitzuetako zabalkundean:		b) En la difusión de los servicios:
- Sustatzea tramite elektronikoak, ahal denean eta udalarekin bat eginda.		- Fomentar cuando sea posible y de acuerdo con el ayuntamiento, los trámites electrónicos.
- Dokumentuak paperean entregatuz gero, erabili paper %100 birziklatua (gutxienez %65 kontsumo ostekoa) eta klororik gabea.		- En caso de entregar documentos en papel, utilizar papel 100% reciclado (mínimo 65% post-consumo) y totalmente libre de cloro.
c) Zerbitzuetan, oro har, eta erabili beharreko material baliabideetan:		c) En los servicios en general y en los medios materiales a emplear:
- Sustatzea ohitura onak ura eta energia aurrezteko, instalazioak erabiltzen direnean.		- Fomentar los hábitos de ahorro de agua y energía en el uso de las instalaciones.
- Sustatzea material mota guztien berrerabilera eta erabilera egokia.		- Fomentar la reutilización y el uso adecuado de todo tipo de materiales.

12. ZERBITZUEN IKUSKAPENA		**12. ZERBITZUEN IKUSKAPENA**
Udalak ikuskatu ditzake Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuekin zuzenean lotutako jarduerak, adjudikaziodunaren betebeharrak egiaztatzeko.		El Ayuntamiento podrá inspeccionar las actividades directamente relacionadas con los Servicios para la Infancia y la Adolescencia, al objeto de verificar el cumplimiento de las obligaciones por parte de la empresa adjudicataria.
Udalak ikuskatu ahal izango du adjudikaziodunaren baldintza teknikoak betetzen diren edo ez, zerbitzuei atxikitako eraikinen egoerari dagokionean nahiz gainontzeko aspektuei dagokienean (ordutegiak, tarifak, e.a.).		El ayuntamiento podrá inspeccionar el cumplimiento de las condiciones técnicas de la adjudicataria, tanto en lo que se refiere al estado de los edificios afectos a los servicios como en cuanto a los demás aspectos (horarios, tarifas, etc.).
Administrazioak zerbitzuak kanpotik ikuskatzearekin batera, adjudikaziodunak etengabe ikuskatu behar ditu barrutik.		Junto con la supervisión externa de los servicios que realizará la administración, la adjudicataria realizará una supervisión interna de forma continuada.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
BLANKA ELENE JAUREGI CAMBRA
2025/05/30